



## ETORKIZUNAREN BILA

Ekonomiaren krisia medio, lanera Alemaniara joandako herriko hainbat belaunaldiren esperientziak 20

azpeitiko  
**ikastola**  
ikasberri koop.e.

Matrikulazio epea:  
Urtarrilak 28tik otsailak 8ra



Informa zaitez  
943 15 12 46

zeurea,  
geurea,  
denona



**599 €**

Ontzi-garbigailua  
G 4210 SC  
Brws Special



**799 €**

Arropa-garbigailua  
W 3240 LW



**999 €**

Lehorgailua  
bero bonba  
T 8860 WP LW



**599 €**

Erabilera anitzeko labea  
H 4314 B ED/C1st



## Negu honetan, Miele-ren kalitatea zure etxera itzuliko da

Beti bezala, Miele banatzaile ofizialetan kalitate eta zerbitzurik onena eskaintzeko apustua egiten dugu. Horretarako, zure eguneroko lanei erosotasunez eta berrikuntze-kin erantzungo dien etxe-tresna elektrikoen bilduma osatu dugu. Diseinua, iraunkortasuna, funtzionamendu ezinhobea, zerbitzu eta aholkularitza maila altua eta benetan prezio harrigarriak.

Neguko Miele promozioaren abantailak zure eskura daude. Aprobetxatu itzazu.



Made in  
Germany

**Miele**  
SIEMPRE MEJOR

\*2013.01.07tik 2013.03.31ra gomendatutako prezioak (biak barne). RAEE kostuak barne. %21 BEZ barne. Beste eskaintzekin baterazineko prezioa.



# uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

**Telefona eta faxa.** 943 15 03 58

**Posta elektronikoa.**

uztarria@uztarria.com

**Posta kutxa.** 227, Azpeitia

**Lege gordailua.** SS-860/2000

**Zenbakia.** 147.a (2013ko otsaila)

**Urtea.** XIV.a (1999ko azaroan sortua)

**Maiztasuna.** Hilabetekaria

**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

**Publizitatea.** 685 730792 /

oalegria@uztarria.com

**Bazkidetza.** 943 15 03 58

**Tirada.** 2.500 ale hilerio

**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak

**Azaleko argazkia.** EREGI

**Web orrialdea.**

[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarria herri aldizkariaren**

**laguntzaileak** (erakunde publikoak)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



**Uztarriak**

**Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkarian

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



## 2013KO OTSAILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16



04



34

## iritzia

**Inkesta.** Karnabaletan zer moztortuko zara? **13**

## mamia

**Lurdes Goenaga.** Auzitegiko medikuaren lanbidearen inguruan, elkarriketa **04**  
**Klik!** Imanol Elias: haren bizitzako irudi esanguratsuak **16**  
**Garazi Larrañaga.** Irunberriko Arangoiti ikastolako zuzendariari elkarriketa **24**

## jakiteko

**Akordatzeko?** Hamar urte 'Euskaldunon Egunkaria' itxi zutela **34**

**Ba al dakizu** urtean 30 euro ordaindu eta bazkide izanda abantaila ugariz goza dezakezula? **Uztarria**

**egin zaitez bazkide Uztarrarian**




943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.060** bazkide **30** euro dira urtean. **gara** Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei. 126.540 euroko aurrekontua du Uztarriak 2013. urterako.



**Liburuxka biografikoak.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarre 'Kabra', Enrike Zurutuza

# LURDES GOENAGA

auztegiko medikua

## “Inplikazio Legal handia du gure Lanak”

Medikuntzan bat eta bat ez dira beti bi izaten. Auzitegiko medikuaren lanak epaitegian “pisu handia” duela dio, “objektiboa” delako. 📎👁️ Ainitze Agirrezabala

**G**auzak tele-sail amerikarretan ikusten diren bezain fantastikoak, errazak eta garbiak ez dira inondik ere Goenagaren egunerokoan. Halere, askotan ailegatzen dira “oso erabakiorrak” diren emaitzetara.

**Auzi-medikuaren lana beti lotu izan dugu autopsiak egitearekin. Baina, horrez gain, zer eginkizun dituzu?**

Epaitegiarekin eta justiziarekin erlazionatutako eta medikuntzarekin zerikusia duen edozein kasu epaileari argitzen laguntzeko gaude gu. Gipuzkoako epaitegian 14 auzitegi mediku gaude guztira, besteak beste, patologian, psikiatrian eta traumatologian adituak. Azken arlo horretan

nago berezituta ni. Zauri garrantzitsuak, traumatismo anitzak, urtebetetik aurrera luzatzen diren kasuak, baliaezintasunak... tratatzen ditut. Gehienbat, auto-istripuak izaten ditugu. Nolabait gure lana ikuskatzailearena da. Salaketa bat dagoen momentutik eta epaitegitik pasatu daiteken kasu bat bada, mekanismo bat jartzen da martxan. Auzi-jartzailea ikuskatzen dugu, alta hartu arte jarraipena egiten diogu eta izandako kalteen balorazioa egiten dugu, ondoren horren araberrako kalteordaina emateko. Lan-istripuak eta negligentsia medikuak ere izaten ditugu aztergai. Kasu guztiak, nolanahi ere, hasieran, auzi-mediku orokorrak aztertzen ditu, ondoren dagokion espezialistari

### |||DATUAK|||||

|||Jaio. 1960ko otsailak 10.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizi tokia. Azpeitia. |||Lanbidea. Auzitegi-medikua, traumatologian aditua.

pasatzeko.

**Umetan galdetuz gero handitan zer izan nahi dugun, oso arraroa da entzutea auzitegi-medikua.**

Nik mediku izan nahi nuela nahiko garbi nuen txikitatik, baina auzitegiko mediku izatera iristea kasualitatea izan da. Unibertsitatean bagenuen gai bat ‘medikuntza legala’, baina oso teorikoa zen. Orain katedratikoa den Pako Etxeberrira gure irakaslea zen eta autopsia bat nola egiten zen ikusteri joateko aukera eskaini izan zigun, baina hain desatsegina iru-

ditzen zitzaidan, ez nintzen sekula joan. Ikasketak 1984an, 24 urterekin, bukatu nituen eta medikuntza ikastea modan zegoenez, jende pila bat ateratzen ginen eta ez zegoen lanik. MIR-a egitea probatu nuen, baina ez nuen gainditu. Medikuntza naturala gustuko nuen, baina ez nuen oso garbi nondik jo eta ordezkapenak egiten nenbilen. Anbulatorioan lanean ari nintzela, Maria Jesus Bernaras medikuak esan zidan epaitegian auzitegi-medikua behar zutela. Urtebetez lan hura nirea izango zela bermatu zidaten; ordezkapenetan iraunkortasunik gabe nenbilen eta probatzea erabaki nuen. 1990eko urteberri egunean hasi nintzen, 30 urte nituen. Azpeitia, Eibar eta



Bergarako epaitegien ardura zuen auzi-medikuak erakutsi zidan autopsiak eta kontsultak egiten. Gero, epaitegi berri bat sortu zuten Bergaran eta aurre-rantzean auzitegi-mediku hura eskusiboki Bergarara dedikatu-ko zenez, Azpeitiko eta Eibarko postua hutsik geratu zen. Asko gustatu zitzaidan lan hura. Orduan jabetu nintzen nik nahi nuena hura zela eta prestatu eta oposaketak atera nituen, 1993an. 2002an ordenaketa eta araudi aldaketa eman zen eta Auzitegi Mediku Euskal Erakundea sortu zen. Ordura arte, auzi-medikuak ginen, mediku generalistak, baina Osakidetza eta Justizia Sailarekin hitzarmena sinatu eta espezializatu egin ginen. Ordura arte, bakoitza bere barruti-judizialean egoten zen; hasieran, ni Azpeitiko epaitegiaren mugapeko arduraduna nintzen, hasi Elusutik

eta Orioraino. Baina orain guztion zentrala Donostia da eta handik mugitzen gara.

**Telesail amerikarretan agertzen den auzitegi-medikuaren irudiak ba al du zerikusirik zure lanarekin?**

Saiatzen gara ahal den ondoena egiten gure lana, baina egia esan, batzuetan gauzak ez dira telesail horietan ikusten diren bezain errazak eta garbiak. Auzi-medikuaren figura bai, hala da. Heriotza bat dagoenean heriotza-lekura joan, laginak jaso, inguruaren azterketa egin eta informazioa jasotzen dugu. Gero, ADN frogak eta analisis toxikoak ere egiten dira. Baina, batzutan inpresioa dut telesail horietan dena oso fantastikoa dela. Dena ondo ateratzen zaie, eta guri gehiago kostatzen zaigu, baina askotan ailegatzen gara oso erabakiorrak diren emaitzetara.

**Lanerako zer baliabide dituzue?**

Urte guzti hauetan zientzian eman diren aurrerapenez gain, lana egiteko moduan ere asko aldatu dira gauzak. Garai hartan, gure aurreko forenseek, Artetxe medikuak esaterako, autopsiak hilerrian egiten zituzten. Nik sekula ez nuen han egin; ez zitzaidan iruditzen baldintza egokiak zeu-

denik. Bonbilatxo txiki bat, harrizko mahai bat, urik ez... Zumarra-gako ospitalean hasi ginen gu autopsiak egiten, hango anatomia patologia zerbitzuak zituen baliabideekin. Arratsaldean egiten genituen, orduan libre egoten baitzen, baina zumarragan ez zuten inongo obligaziorik zerbitzu haiek guri uzteko, eta trabak jartzen hasi ziren. Orduan Donostiara, Polloeko hilerriaren ondoan zegoen anatomia patologiko gure zerbitzura, hasi ginen eramaten gorpuak. Han, gainera, babesa ere bagenuen. Beste auzi-medikuekin harremanetan geunden, eta kasua pixka bat zaila bazen, elkar laguntzen genuen. Zentzu horretan, hobera egin genuen. Gero, 2002an, epaitegi zentrala Atotxako eraikineri lekualdatu zen. Gaur egun, bertan ditugu bulegoak, auzitegi-klinika eta patologia zerbitzua. Era berean, ►

“kasualitatea izan da auzitegiko mediku izatera iristea”

“emozionalki inplikatuko bagina kasu bakoitzean, jasanezina litzake”



ordenaketa aldaketa eman aurretik, Azpeitian lana egiten nuen garaian, urteko egun guztiak egoten nintzen guardian. Ez nuen desko-nektatzen. Inora joan nahi bagenuen beti telefono mugikorra aldean hartuta; eta etxetik irtetzeraz ere, hemen inguruan egin behar izaten genuen. Orain, horretan ere asko hobetu dugu. Hastean behin izaten dugu guardia, baina gainontzeko egunetan 08:00etatik 15:00etara egiten dugu lana.

### **Zure lanean egoera gogorrek in egingo duzu topo. Nola daramazu hori?**

Tokatzen dira kasu gogorrak, baina ohitu egiten zara. Nik uste dut kasu gehienetakoak ikusita gaudela, eta berrian ez gaituela harrapatzen, baina akordatzan naiz lanean hasi berrian. Eibarraren mutil gazte batek bere buruaz beste egin zuen tiroz. Beldur pixka batekin joan nintzen, artean gauza asko ikusi gabe bainengoen. Gurasoen ohean zegoen etzanda, izara batekin estalita. Joan nintzen, kendu nuen izara eta burua falta zitzaion. Gora begiratu nuenean sabaian dena zabaldua zegoen. Ikaragarria zen. Ia bertan mareatu nintzen. Hurrengo goizean, autopsia egin behar nion eta gau guztian ez nuen lorik egin. Baina, beno, hura pasatu zen eta harrezkero kasu gogorrak mordoa ikusi ditut, baina ez didate hainbeste eragi-

ten. Ohitu egiten zara. Gure lana da, eta distantzia batera ikusten dituzu gauzak; emozionalki inplikatu bagina kasu bakoitzean, seguruenez jasanezina izango litzateke.

### **Ardura handiko lana da.**

Bai, inplikazio legal handia du gure lanak. Gure gain dago, autopsietako emaitzen gain dago, erabakitzea epaieketa batean pertsona bat erruduna edo errugabea den; kartzelaratu behar den ala ez; pertsona batek zer kalte ordain jaso behar duen; edo gizahilketa ala erailketa den. Medikuntza bat eta bat ez dira beti bi izaten. Egoten dira hor guk kontrolatzen ez ditugun aldagarriak ere, beti emaitza berdineraren ematen ez gaituztenak. Gauzak ez dira beti argi egoten, eta kasu horietan probabilitate desberdineko hipotesiak sortu eta erabaki desberdinak epaileei ematen dizkiegu. Askotan, guk emandako erabakiak itsu-itsuan jarraitzen ditu epaileak. Hori hala da. Gu ez gaitu inork ordaintzen bere alde edo kontra egiteko. Epaitegian gure lanak pisu handia du objektibo delako.

### **Auzitegi-medikua zarela esatean harritzen al da jendea?**

Azpeitian ibiltzen naizenez, guztiek ezagutzen naute eta orain ez dut hori hainbeste bizi, baina lehen, hasiberritan, harritu egiten zen jendea: 'Forensea? Baina

nola liteke hori?', esaten zidaten. Auzitegi-mediku lanean hasi nintzenean, bi emakume bakarrik geunden; orain, berriz, 14 medikutatik sei emakumeak gara.

### **Murritzketak zerbitzu publiko askotara ailegatu dira. Zuei eragin al dizuete?**

Funtzionarioak garen heinean, soldata izotzuta dugu, eta aparteko ordainsaria kendu digute. Lanhitzarmenaren arabera, opor egunez gain, urtean bederatzi egun genituen hartzeko, eta horiek hirura murriztu dizkigute. Azken bi urteotan agendarik ere ez digute eman. Horrez gain, zenbait ohar ere jaso izan ditugu, adibidez, analisiak eskatzerakoan, kontu gehiagorekin ibiltzeko eskatuaz. Alegia, toxikoen kasuan, esaterako, eskaera zehatzak egiteko, eta ez orain arte bezala analisia zabalak.

### **Auzitegi-mediku lanbideak zer alde on eta zer txar ditu?**

“Guk emandako erabakiak itsu-itsuan jarraitzen ditu epaileak”

“Ez da lan monotonoa, oso aberasgarria, baizik”

Bere barnean alor asko hartzen dituen lanbidea da. Era askotako kasuak aztertzea dagokigu, bate-tik bestera ere asko ibiltzen gara eta zentzu horretan ez da lan monotonoa, oso aberasgarria, baizik. Ustez ikusi beharreko guztia ikusita genuelakoan, lanbide honek oraindik ere batzuetan us-tekabean harrapatu eta harritu egiten gaitu. Horiez gain, nik beti pentsatu izan dut medikuntzan pertsonaren bizitza norberaren gain edukitzea ardura handia dela, eta zentzu horretan, gure lanak beste ardura batzuk baditu, baina pertsonaren bizitza, behintzat, ez dago jokoan. Alde txarrei dagokienean, berriz, kasu gogor-rak eta desatseginak ikusten ditugu batzutan eta horiek jasan egin behar dira. Gure lana da eta egin beharra dugu. Edozein pertsonak igoal ez du balio zenbait egoerei aurre egiteko. Ez da ohikoa, baina tokatzen zaigu urtebe-tez deskonposatutako gorpu bat jasotzera joan beharra, eta hori ez da atsegina inorentzat.

### **Bitxikeriak ere gertatuko zitzaizkizun.**

Zumaiako Itzurun hondartzara joan ginen gorpu bat altxatzera. Epailea berria zen eta hildakoa ikusi zuenean mareatu egin zen. Alde batean hildakoa, eta beste aldean gainontzeko guztiak epaileari haizea ematen. 'Ene, mese-dez, a zer lotsa!', esaten zuen epaileak.✱



**Tindategia  
Sagarna**

- Berezitasuna lehorreko garbiketan
- Nordikoak, mantak, edredoiak eta gortinen garbiketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943 02 66 81

1.solairuan gaude

# urrategideko

altzariak & sukaldeak



Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua  
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)  
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14  
[urrategideko@urrategi.eu](mailto:urrategideko@urrategi.eu)  
[www.mueblesurrategi.es](http://www.mueblesurrategi.es)



# Suitzara altzariekin

**S**uitzari buruz aditutako hiru gauza ezagutzen nituen: Alpeak, erlojuak eta banketxeak –banketxetik banketxera y tiro porke me toka!—. Barkatu, gehiago ziren. Nola ahaztu bertako multiuso bikainak? Zerra, sakakortxoak, lima, aiztoa... denak batean, hori bai inbentua! Eta gubiak ere oso onak, merkatuko onenak.

Orain, bertatik bueltan beste bat esango dizuet sei hitzekoa: ADUANA.

Inoiz zapaldu al duzue aduana bat? Ni jada ez nintzen oroitu ere egiten garai bateko Irungoarekin ere. Imaginatu Suitza, inguru guztia aduanazkoa. IKARAGARRIA!

Nork esango zuen hainbeste kostatuko zitzaigula erakusketa hartan parte hartzea?

Bidaia luzea izango zela bagenekien, prezio altuen kontua ere bagenekien, baina eta aduanarena? Geu sartu ginen baina arazoak gure altzariekin etorri ziren. Beti izan nituen dudak dokumentu horiekin.

Aduana da gauza bat zaila, nekosoa eta aspergarria, burokraziaren topea, beti zerbait falta; paper horia ez bada arroxak, exportazioak ez bada inportazioak... eta horrela luze betean. Bene-benetan esaten dizuet, kristoren mundua aurkitu genuela mugan, gupida ditut bertan lana egiten dutenak. Bide batez, kamiolariak agurtu nahi nituzke; bidaia luze honen ondoren konturatu naiz meritu handiko lana dela zuena. Zuengatik askotan kexatu izan naiz, batipat Zumarragako bidean kotxez kamioiren batekin topo egitea tokatu izan zidan.

Kostata... baina lortu genuen, furgoneta, trasteak, gu, DENAK HAN. Hegoaldeko kantoiari italiaraz hitz egiten dute, eta nik zerbait ulertzen nuen: hasieran asko bukaeran batez. Azokako beste partaide guztiek ere italiaraz hitz egiten zuten, (%90 italiarrak ziren) gu kenduta, noski. Gu ere saiatu, saiatu ginen, ezer jakin gabe, azentoa jarri, etabar, hitz egiten, imaginatu dezakezuen moduan emaitza nahiko aldrebesa ateratzen ze-



iosu salegi

||| Bidaia luzea izango zela bagenekien, prezio altuen kontua ere bagenekien, baina eta aduanarena?

larik: nola esango dizuet nik... erdi argentinar moduko bat edo... eh, hori ere ez. Kuriosoa da italiararekin eta portugesearekin gertatzen zaiguna. 'Bah! Hoyek kastellanun antzekuk dituk, dana entenditzezikobek. Ja! Ezetz ba, ez engainatzeko heure burue, beste hizkuntza bat dala!'. Beno, katalana beste hizkuntza bat den arren bai ulertzen zaiela, ez dakit zergatik azpituatzen dituzten.

Kontuak kontu, isilik behintzat ez ginen geratu eta ondo konpondu ginen.

## Zenbait kuriositate

Frantzia: ez da berehalakoan zeharkatzen furgonetaz. Gasolindegietako kafetegiak oso onak dira, batipat bertako txokolatzeko napolitanak eta kafea (bi hilabete kafeina gabe). Autopistako peaje asko eta garestiak. Avignonen geratzeak merezi du, zoragarria da.

Italia: Gasoila 1,73 € litroko! Etetik depositoa ondo beteta atera. Peaje gutxi eta merkeak. Pizza... boccato di cardinale!

Burro, ez da astoa gurina baizik.

Astoa asno da, eta saltxitxoa egiten dute berarekin.

Web orri gomendagarri bat: [www.adarebanisteria.com](http://www.adarebanisteria.com).

Ciao, eta hurrengo rarte. ✘





# ARGAZKI ESTUDIO BERRIA ZABALIK

Xanti Rodriguez argazkilari profesionala bere kasa hasi da lanean eta estudio propioa estreinatuko du.

Hil honetan zabalduko ditu ateak 130 m<sup>2</sup>-ko estudio berriak, Olazko Amaren Plazan

Gaur egungo estilora egokitutako gune zabalak bezeroaren eskura. Kalitatea ardatz eta berme osoa eskainiko duen punta-puntako argazki-estudioa

Herritarren beharrei erantzuna emateko helburuarekin, ohiko argazkilaritza zerbitzua eskaintzen jarraituko du: jaunartzeak, ezkontzak, estudioko argazkiak...

Enpresa handientzako ere egingo du lana; besteak beste, publizitate eta diseinu lanak, irudi korporatiboak...



Eskaintza zabala; bezeroaren aurrekontuaren arabera, poltsiko guztietara egokitutako zerbitzua ematea du helburu

Lana egiteko moduak: aurrez aurre; telefonoz (943083753) eta e-mail bidez (info@xantirodriguez.net)

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Ohartxoan berri euskara hutsean, noski!

Bejondaiola etxeko atarian ohartxo hau euskaraz jarri duen herritarrari. Bilatutako besteren gauzak entregatzeko kontzientzia izateaz gain, euskara darabil. Uztarria

**BEHERA.** Euskarari kasu zipitzik ez.

Hankamotz utzi du euskara ordutegi hau erdara hutsean jarri duen enpresak. "Zure esanetara gaude", baina... gaztelaniaz bakarrik? Uztarria\*



Ramon Etxezarreta.

## ESANA DAGO

III "Euskara sinbolo baino hizkuntzagoa izan behar da. Elebakartasunaren aldeko aldarria zilegi da, baina egun ez da erreala"

III "Elebiduna ez den gizarte batean, nere ustez, euskerak ez luke etorkizunik"

RAMON  
ETXEZARRETA  
medalla

III "Errauskailua bideraezina da, ez dugu jolastuko osasunarekin"

III "Birziklatzea ez da aukera bat, beharrezkoa da"

IÑAKI ERRAZKIN  
Ingurumen diputatua



kutxa



domusa

# Oilar bihurtu zen xapoaren ipuina



txetxu urbieta

**A**zpeitiarrak munduan barrena. Faltan botatzen dudak Kaito telebista zenarentzat arrakasta segurua. Zer litzateke mundua Azpeitia eta azpeitiarrak gabe? Eta gu, gure diasporari duen garrantzia aitortu gabe. Gure festa egutegi laburra pittin bat luzatzeko aukera ona.

Milaka dira herria utzi eta arrazoi ezberdinak tarteko, munduan zehar sakabanatutako xapoak. Milaka, milaka kilometro egindakoak, eta milaka metropolia utzi eta itsas-ertzeko kolonietara joandakoak. Horieta bat, Zarautzera txistua izeneko musika instrumen-

tua eraman zuena. Bere abizenak musika txertatua darama. Sarrera luze harroputz guzti hau, zutabeko protagonista aurkezteko. Txistulariaren semea, surfista, gure surf modernoaren aitetakoa. Izenez Aitor, *Gallo* goitizenez. Gutxi dira, gure Euskal Herri maite honetan olatuen txistu doinuak nola dantzatu, gure oilarrak adina dakitenak. Berean maixu ezezik katedratiko entzutetsu ere bada.

Bere jakituria osoa, ordea, txiki gelditzen da bere gizatasunaren parean. Petral itxura baina beti irribarrea ezpainetan. Pasa den

udan kolpe latza jaso zuen. Olatu gainean dantzan ari zela, istripua izan eta itsu gelditu. Ia denontzat tragedia. Oilar bihurtu zen xapoarentzat ez. Inork ez du bere ahotik kexa, ai ene edo pena kutsuko hitzik entzun. Egoera berrira moldatu eta aurrera. Batzuk begibista ona eta ezin ikusi. *Gallo* bistarik ez baina dena argi. Surfeatzen jarraitzen du eta surfaren talenturik onenak bere esku daude. Bizi-pozak eta bizi-gogoak preziorik ez. Hori eta klasea, txistua Zarautzera eraman zuen aitaren odolari zorko dio. Azpeitiarrak munduan barrena.\*

publierreportajea



## Ikastolan, haurraren garapenean laguntzeko bitarteko guztiak ditugu

**H**aur Hezkuntzak garrantzia berezia dauka haurraren garapenean. Bizitzako lehen urteetan aldaketa eta aurrerapen handiak egiten dituzte haurrek. Nortasunaren lehen ezau-garriak finkatu eta adimen gaitasunak garatzen hasten dira. Hizkuntza eta gizarteratze aldetik ere aurrerapen handiak egiten dituzte adin honetan.

Ikastolan, haurrari bere garapenean laguntzea dugu helburu, haur bakoitzaren erritmoa errespetatuz eta bere interesetatik habiatuz lan eginez. Haur bakoitzak bere garapen prozesu propioa du eta garapen afektiboak adin honetan duen garrantzia kontutan hartu nahi dugu. Eta espazioa ere haurren beharretara egokitu dugu,

haurren garapena eta esplorazioa bultzatuz.

### Urtxintxa proiektua

Hezkuntza ibilbide osoan, ikastolen elkarteak sortutako material propioa erabiltzen dugu eta Haur Hezkuntzarako Urtxintxa proiektua garatu dugu. Proiektu honekin, euskarri askotan egindako ikasmaterialekin, inguruari eta gauzei buruzko ideia propioak garatuko ditu eta baloreak eta jarrerak barneratzen hasiko da, besteak beste.

Bestalde, gurasoei gure geletako ateak ireki eta haur bakoitzaren beharretara moldatutako egokitzapen aldiak ditugu.

**azpeitiko**  
**ikastola**  
ikasberri koop.e.

### ► Nolako hezkuntza?

Euskara eta euskal kulturaren oinarritua  
Eleanitza  
Pedagogia aurreratua  
Gurasoak parte hartuz

### ► Gure eskaintza

Haur Hezkuntzatik Batxilergora  
Ordutegi zabala  
Zaintza zerbitzua  
Jangela  
Garraio zerbitzua

**Matrikulazio epea:**  
**urtarrilak 28tik**  
**otsailak 8ra**

**Informa zaitez**  
**943 15 12 46**



## |||URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



|||izaskun egiguren|||



### *Zutabea pertsonak direnean*

**DENON ARTEAN.** Prozesu parte-hartzailea abiatu da, 2013ari begirako udaleko asmoen eta aurrekontuen zehaztapena egiteko asmoz. Herritarren iritziak eta beharrak jaso eta dauden hutsuneak betetzeko ahaleginaren parte izango da prozesua. Herritarrek prozesuaren ardatza badira, pertsonak izan beharko dira, aurrekontuaren zutabe nagusia: lana, osasuna eta hezkuntzaren beharra dutenak...

### *Lasterketa-saioak*

**EMAKUMEA.** Udalak antolatutako emakumeen lasterketa saioek izandako gorakada nabarmena da. Hone-lako aldaketak emateko, emakumeei aukerak irekiko dizkieten lanketa bereziak beharrezkoak dira, ikustezintasunetik presentzia esanguratsua izatera pasatzeko.



### *Publizitate sexistari satira*

**DUINTASUNA.** Publizitateak erakargarria izan behar du; salmentak areagotzeko egina dago, bai. Baina, emakumearen irudia iraindu behar al da horretarako? Emakumeon gorputza trukeko materia gisa erabili behar al da? Emakumeon inteligentzia zalantzan jartzea beharrezkoa al

da? Ezezkoan nago, baina uste dut, oraindik, publizitatea egiteko modurik erosoena dela, gure jendartearen dirauten ikusmolde sexisten isla dela. Publizitate sexista darabiltenen produktuak ez erosten saiatzeko naiz, duintasun eta osasunerako kaltegarriak direlako, eta zu?\*

## INKESTA

karnabaLetan  
zer mozorrotuko  
zara?

Ainitze Agirrezabala

MOHAMED RIAD

8 urte



"Ninja dortoken marrazki bizidunak asko gustatzen zaizkit, eta zalandan nago, ninja edo spider-man jantzi. Baina, superheroiz jantziko naiz. Ikastolan lagunekin mozorrotuko naiz; ez dakidana da kaleko desfilean aterako naizen".

ABDUL BUKARMUS

8 urte



"Asko gustatzen zait mozorrotzea. Inauterietarako bi aste falta dira,


baina gaur ere pelukarekin nabil jolasean. Ninjaz mozorrotuko naiz, eskolan eta kalean".\*

## Ispilua

Hiru, lau, bost, sei... Kontua galduta dut, baina ez dakit zenbatgarren aldiz gauza bera ikusi eta oraindik ez naiz aspertzen. Errepikatzeak ez die grazia kentzen, datorrenaren jakinaren gainean egoteak ez dizkit barre algarak baretzen. *The Simpsons* telesailaz ari naiz.

Unibertsitateko irakasle batek esan zigun behin, Estatu Batuetako historia ikasteko modurik onena, Simpsonen kapituluak ikustea zela. Historia ez ezik, egungo gizarte estatubatuarren argazki gordina dela ere badela diote.

Eta hala izango da, baina askotan AEBetan baino Azeptian bertan kokatuta dagoela iruditzen zait. Herriko patroï den Jebediah Springfield, esaterako, herriar guztiek heroizat dutena, bere omenez festak antolatzen dituztena, fartsante hutsa izan zen, traidorea. Springfield-eko plazan bere omenezko estatua galanta dute. Guk herriko plazan ez, harata-go joan gara eta mendi puntan, edozein tokitatik eta



yuri agirre

gau eta egun ikusteko moduan, egin diogu estatua gure kabroi handiari, gure Jebediah-i.

Eta egia da, guk ez bezala, Springfield-en zentral nuklear bat dutela, segurtasun neurri handirik gabekoa. Herriaren tximini lana egiten duena, baina herriarrei lana ematen diena. Ez gara, ordea, gehiegi desberdintzen, guk ere baditugu eta gure tximinia eta labea. Behin, zentraleko langileek greba egin behar izan zuten. "Nos manifestaremos como hicimos ayer, la fabrica es vuestra, pero nuestro el poder", abesten zuen Lisak. Ez dakit Alfonso Gallardok zenbat urte izango dituen, baina Sr. Burns-en berdin-berdina imajina dezaket.

Gainezka dagoen zabortegiaz hitz egin genezake, poliziaburu bikainaz, politikariez, herriko gazteez, irakasleez, tabernariez, Homer, Marge, Flanders edota Milhousena bezalako gurasoez... eta esan, ez al gara Springfield-en bizi?\*

galdetzen hasita, zenbat dira oraindik emakumeak bazkide onartzen ez dituzten herriko sosiedadeak? Uztarria

## Isilguneak, isiluneak

Joan zen urrian, Washingtoneko frantziskotarrek "Hiriko ermitaudentzat aterpea" ireki zuten hiriburuan. Erretiroak isiltasunean egin nahi dituztenek, kanpoko zaratarik gabe barruko zaratak baretzen saiatu nahi dutenek, bihotzeko bakea berreskuratu nahi dutenek aukera dute han... eguneko 50 euro ordainduz. Eskaintza handia dago Estatu Batuetan, eta gero eta handiagoa da eskea.

Isiltasun-falta oso garesti ari gara ordaintzen, baina ez ote dago isiltasuna merkeago aurkitzeko modurik? Nago baietz, geure esku dugula.

Askotan amesten ditut isiltasunezko aterpeak gure herrietan. Zinemak, kultur etxeak, kiroldegia... eta zergatik ez isilguneak? Zer ziren, bada, garai batean gure elizak, isilgune edo arnasgune baizik? (Tamalez, estutasuna ere aurkitzen zuen jendeak elizetan. Ez gutxitan). Elizak husten eta ixten ari diren honetan, ez legoke gaizki, adibidez, eliza hutsak isiltasunerako eta bakerako espazio laiko bihurtzea.



joxe arregi

Zaratak itotzen gaitu. Eta ez naiz batik bat trafikoz ari. Zenbat liburu, berriketa, iragarki, mezu, I Pad..... trafikoaren zurrunbiloa baino zurrunbilotsuago! Eta denetan okerrera barruan daramagun errota geldiezinaren etengabeko gogoeta, zarata isila. Etengabe gauzka barreiatu eta urduri, ez garenaren edo ez dugunaren irrika, iraganaren damu, etorkizunaren beldur. Ez gara geu. Ez dugu bakerik.

Horrela ezin da bizi. Isilguneak behar ditugu, eta isiluneak, batez ere. Har itzazu egunean 20 minutu gutxienez. Eseri lasai, sentitu, arnastu. Hartu amasa bularra puztu gabe, birrikak sabel-hondoraino betez. Isiltasunaren baitan Bakea dago, dena dago bakean. Zauze bakean. Utzi beldurrak, amorruak, irrikak, desirak urtzen, desegiten, desagertzen. Zure esku dago. Saiatu, baina lasai, "saiatu gabe".

Nonahi aurki dezakezu isiltasunezko aterpea: elizan bezala itsas bazterrean, mendian, etxean, herriko plazan, autoan. Onuragarria bezain merkea da.\*

**ostadar optika**  
OPTOGAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**lentzeria  
mertzeria**

jose artetxe, 16

nabar

**AZKOITIA**

ERLOJU  
KONPONKETAK

Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



# Desarme ideologikoa

**A**upa kuadrila, ea zer iruditzen zaizuen hil honetako gogoeta!

Gehienok, urte askotan zehar “ongizate estatuaaren” onuradun izan gara. Institutzioek herritarren oinarriko bizi baldintzak asebetetzeko laguntzak luzatu izan dizkigute, hala nola osasuna, heziketa, edota mota askotako diru laguntzak. Era berean, banketxeek, soldaten aukera errealean gainetik bizitzeko aukera eskaini digute, kredituen zurrunbiloaren bitartez edozer lortzeko aukera eskainiz, aberatsak ginela sentiaraziz, “klase ertainaren sindromea” sortuz. Ez zegoen baldintzarik, “dirua pertsonen zerbitzura” baitzegoen. Denok genuen nahi genuena izateko aukera, nahiz fikzio hutsa izan. Funtsean zorpetzearen truke aberastu gara. Paradoxa krudela. Bizi maila “altu” horrek, era berean, eguneroko arazoak alde batera uzteko joera eragin du gudan, zeren azken batean, “dirue gastatzeko den/k”. Beraz kontsumo burugabe batean murgildurik pasatu dugu gure aisialdia: *Goenkale*, *Gandia Shore*, *Mujeres y Hombres* eta *Sálvame* ikusten; zinean; ZARAn; Media Markten; Forumen; INOXen; Anoetan; Kiko Rivera, MTV, Oihan Vega, Euskadi Gaztea entzuten; Parrandan, drogak jan eta jan... ametzezko eredu indibidualista eta “apolitiko” batean sartuta, non kritikak, ardurak eta kontzientziak lekurik ez duten. Ezta beharrik ere. Eredu alternatiboak albo batera utziz, “hoi den/k aberiye daukebena” pentsatuz. Ez zegoen arazorik, eta agertzen zirenean berehala uzten genuen egin beharrekoa beste norbaiten eskuetan, “nik bizi inber di(n)at” eta “harek ingoin/k” pentsatuz, inertzia jokatzuz, aurrean jartzen zigutena irentsiz, zegoena zegoen bezala onartuz, “earki bizi naun/k eta”.

Gure buruaren eta, oro har, bizimoduaren kontrola alde batera utzi dugu, delegazioan sinetsiz; hain ondo funtzionatzen zuen mundu hartan politikariek gure arazoak konpontzen baitzituzten, banketxeek diru lagun-



|||||||hodei mendinueta|||

|||Barru barruraino sartu digute, amua irentsi dugu, eta pita, eta kañabera; ez iruditzen?

tzak eman, sindikatuek lan baldintzak borrokatu... eta guk eskatu besterik ez genuen egin behar.

Oraindik askok honetan sinesten jarraitzen du, baina ez dago ongizate estatutik, klase ertainaren eta behartsuenen suntsipen sistematikoa da araua, ustelkeria da gure ordezkarien eguneroko ogia, zorrez leporaino gaude eta beldurra dugu edozertarako. Kontsumitzaile hutsak egin gaituzte, geurekoiak, pasotak. Eta ametsa, gezurra, sinetsi dugunean ZAPLA! Ez dago krediturik, ez dirurik, ez lanik, ez dirulaguntzarik. Guretzat ez dago ezer. Ondo montatu dute barraka, pobreak pobretuz, aberatsak aberatsago izateko.

Gure izaera, nortasuna, ostu digute: informatzea, klase kontzientzia, arazoak elkarbanatzea, antolatzea, erantzutea, sortzea, aldarrikatzea, auzolana, desobedientzia, borroka, independentzia, sozialismoa, feminismoa, berdintasuna... Erabili egin gaituzte, alienatu, desarme ideologikoa eta moralak erabatekoa da. Barru barruraino sartu digute, amua irentsi dugu, eta pita, eta kañabera; ez iruditzen?\*





# Ispiluak

**G**aurko jarduna izan zitekeen herriaz, herria egiteko moduaz, herri izateko baldintzez. Izan zitekeen kulturaz, antzerkiaz, historiari, politikaz. Hala ere, gaur ispiluez jardungo gara.

Denok ezagutzen dugu, konparazio batera, zerbait biziki maite duen pertsonaren bat. Eta mundua zerbait horren ispilutik ikusten duenik. Horrelakoek eginahalak egingo dituzte ispilukoaren antza izateko. Eginahalak egingo dituzte, atrezzo egokia bilatuz, inguruko ispilu barrukoa dela sinestarazteko.

Badira beren burua ispiluan ikusten ez dutenak ere. Hala ere, mundu guztiak ezagutzen ditu, ispilua bi aldeetan izugarrizko antza daukate, pertsona bera dira, itxuraz. Hala ere, norbere burua ez du zenbaitek ispilua beste aldean ikusten.

Gogoratzen al zarete Kenpixonean zegoen ispiluez? Ahurra zen zati batzuetan, ganbila besteetan. Errealitatea eta fikzioa nahastu nahi izaten dituzte beste batzuk. Azken aldiari horrelako literatura eskaintzen digute hainbat idazlek. Irakurleek dena sinestea nahi dute, zalantza zabaltzea, gezurra sartzea,

## ■■■■■■■■■■eñaut frantzesena■■■■■■■■■■

egia sortzea. Idazleek Kenpixoneko ispiluan ikusten dute beren burua, eta pertsonaien errola jokatu nahi lukete. Eta hainbat pertsonaiak, aldiz, idazle izan nahi luke.

Eta badira hautsa eta zikina zegoen lekutik ispilua ateratzen dituztenak ere. Inor konturatu gabe lan isila egiten dutenak, inor konturatu gabe aurrean duten ispilua, konparazio batera historiaren ispilua, garbitzen dutenak. Eta ekinez eta ekinez, garbituz eta azaleratuz, geure beste ikuspuntu bat eskaintzen digutenak.

Eta pertsona horiek ispilua bilakatzen dira.\*



# 'Dime quien soy'

**L**iburu hau Julia Navarro idatzi duen azkena da. Itxura denez, idazle honek jarraitzaile asko ditu eta jendea zain zegoen Plaza&Janesek liburuak kaleratzeko. Halaxe 2010eko martxoan kaleratu zuen nahiko arrakastarekin.


Niretzako idazle honen aurreneko liburuak izan da. Estiloa, nobela historikoan kokatuko nuke, zeren nahiz eta nobela izan, benetan gertaturiko apunte eta data historiko asko ematen ditu.

Liburuaren trama ondo muntatuta dago eta interesa mantentzea lortzen du, nahiz eta zenbait unetan gehiegizko kasualitateak gertatzen direla iruditu zaidan. Gertaera batzutan luzeegia egin zaidala ere esan beharra dut.

Istoria Madrileko familia baten baitan hasten da. Senideek amonaren aztarna aspaldidanik gal-

## ■■■■■■■■■■KRITIKA■■■■■■■■■■

'Dime quien soy' nobela



**Autorea.** Julia Navarro.  
**Argitaletxea.** Plaza&Janes 2010.  
**Orrialde kopurua.** 1.097.  
**Salneurria.** Elektronikoa: 8,99€; tapa gogorrekoa: 23,90€; patrikakoa: 12,99€.

duta dute familian, oso gaztea zela bere senarra eta seme bakarra utzi eta ihesi alde egin baitzuen, maitasun eta politika kontuak zirela eta. Ospakizun bat gertu dela eta familiakoa den kazetari bati birramonaren inguruko ikerketa burutzeko eskatzen diote ospakizun egunerako.

Hasieran, kazetariak ez du gustuko lana, baina langabezia eta diru beharrean aurkitzen denez, ikerketa egitea onartzen du, berehala bukatuko duela pentsatuz.

Irakurlea liburura lotzen duena ikerketaren bilakaera da. Ikerketa aurrera doan eran birramonaren bizitza zirraragarria ezagutzen joango da biloba kazetaria. Bere bizia benetan aipagarria izan zela jabetzen da, bai Espainiako gerra zibilean, bai II. mundu gerraren ondorioek benetan mintsu eta

gogor jo zutela, eta garai trakets haietan izaera pasibo bat izan orde, oso paper aktiboa izan zuela, espia lanetan aritzeraino.

Amelia Garayoa zuen izena, euskaldun jatorrikoa. Beste hizkuntza askoren artean euskaraz ere moldatzen zen. Horrek harrotasun puntu bat ere jarri dit irakurtzerakoan.

Nobela honetan asko gustatu zaidana, bere alor historikoa da. Esan bezala, datu historiko pila bat ematen ditu eta, besteak beste, sarri azaltzen dira: Hitler, Mussolini, Trosky, Stalin, Churchill, Largo Caballero, Azaña, Franco eta abar luze bat.

Orokorrean, liburu hau nahiko interesgarria iruditu zait. Baliteke pixka bat luzeegia izatea. Idazte akats batzuk ere baditu, baina era guztietara gomendagarria.\*



## ■■■■■■■■■■luix juaristi■■■■■■■■■■

**urke** ondo pasau inauteriak

ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAJEAK salbe auzunea 35 - telf 943 15 12 87 - azpeitia

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81



### ▼ IMANOL ETA ITZIAR.

Gazte-gazteak zirela hasi ziren elkarrekin Imanol Elias eta Itziar Oiarzabal, eta horrelaxe jarraitu dute Imanolen heriotza arte. Imanolen antzerkiarekiko pasioaren partaide eta lagun ere izan da Itziar. Argazkian, OARGUI-k antolatu zuen aurreneko antzezlanean, 'Damua garaiz' (1957).

### ▼ LOTZEN ZAITUEN KATEA.

Horrela definitzen zuen Imanol Eliasek historia. Ikasle garaian hain gustukoa ez zuen gaiari ordu, urte eta lan eskerga eskaini zizkion gerora. 1997an argitaratu zuen 'Azpeitia Historian zehar' (argazkian), arlo horretan egin zuen lanik mardulena, eta euskara hutsean eman zuen lehena.



# Hamaika lan

Eta argazki-bilduma honetan haietako apur batzuk besterik ez. Urtarrilaren 26an hil zen Imanol Elias. Haren ondarea, baina, bizi-bizirik dago. 📷📖 Uztarria





## ► UDA DONOSTIAN.

Uda sasoiari, bere Azpeitia kutunetik gehiegi urrundu gabe, oporrak Donostian pasatzea gustuko zuen Imanolek, etxekoekin. Uda haietako batekoa da Asier semetzako ilobarekin Alderdi Ederren ateratako argazkia.



## ▲ IRAKASLE GAZTEA.

Urteekin osatuz joan zen curriculum zabal, aberats eta anitzean ahaztuenen artean gelditu arren, irakasle lanetan ere ibili zen Imanol. 1955ean sortu zen Institutu Laboraleko aurreneko irakasleetakoa izan zen, hain zuzen. Ikasleekin antzezlan bat baino gehiago egin zituen, baina kirolerako tarteak ere hartzen zuten, argazkian ikusten denez.







### ▲TXALO SARIA.

2009an jaso zuen, bere bultzadapean sortutako Euskal Antzerki Topaketan XXVII. edizioarekin, antzerkian eta antzerkiaren alde egindako lana aitortzen zion saria (argazkia ekitaldi hartakoa da). Inork merezitzekotan...



### ▲UZTARRIAK BIOGRAFIA.

2002an argitaratu zuen Uztarria Kultur Koordinakundeak Imanol Eliasen biografia. Mailo Oiarzabal kazetariak idatzi zuen. Ia hamaika urteren buruan, biografia 'osoa' denik ezin esan, harrezkero ere Imanolek lanean eta fruituak emanez jarraitu zuelako. Argazkian, biografiaren aurkezpenean: Enekoitz Esnaola, Imanol Elias eta Mailo Oiarzabal.

### ►OHOREZKO KRONISTA.

Asko egindakoek ez dute beti neurriko errekonozimendurik jasotzen. Neurriak neurri, Imanol Eliasek behintzat jaso zuen bere bat ibilbide luzearen azken urteetan. Azpeitiko Udalak, esaterako, herriko ohorezko kronista izendatu zuen 2010ean. Julian Eizmendi alkatearen eskutik jaso zuen oroigarria.



### ▲ALKATETZA LABURRA.

1983ko udal hauteskundeetan ondoren iritsi zen alkatezara Imanol Elias, EAJren zerrendaburu gisa. Urte eta erdiz egon zen karguan, dimisioa eman aurretik.



### ▲AZPEITIA, BETI.

Azpeitian eta ia beti Azpeitiari begira egin zuen lan Imanol Eliasek. 2004ko 'Azpeitia, 500...' liburua, adibide zerrenda luze bateko beste bat.







### ▲ KALDERERO ERE BAI.

Kaldereroen konpartsaren omenaldia jaso zuen Eliasek 2000. urtean, Patxi Azkargortarekin batera.



### ▼ KULTUR GIZONARI OHORE.

Mende erdi luzez, Elias ezinbesteko erreferentzia izan da Azpeitiko kulturgintzan. Antzerkizale, sortzaile eta bultzatzaile, idazle, historialari, eragile... Hori guztia aitortuz eta eskertuz izendatu zuen Kultur Mahaiak ohorezko bazkide, 2011n.



### ▲ SOKAMUTURRAREN ARGAZKIAK.

Azpeitian ikusleak erakartzen dituen erakusketarik bada, hori Karnabaletako sokamuturraren bueltan egiten den lehiaketarena da. Eta hori ere, ezin ulertu Imanol Eliasek Antxieta Etxeko arduradun garaietan emandako bultzadarik gabe. 2012an, 'Imanol Elias Saria' izena eman zion lehiaketari Azpeitiko Argazki Elkarteak. Urte hartako martxokoa da argazkia, erakusketa ireki zutenekoa.



# Alemaniarra joan nintzen...

‘Alemaniar miraria’, hala deitu zioten etxean kontuak beltz ziren garaian germaniar lurraldeak eskaintzen zuen lan-aukera oparoari. 📌📞 Ainitze Agirrezabala

**1** 960ko hamarkadaren hasieran, ekonomiaren krisia medio, emigrazio handia egon zen Alemaniara. Azpeitiko hainbat familik maletak egin zituzten etorkizun hobe baten bila. Germaniar herrialdeak lan-aukera oparoa eskaintzen zuen, eta mende erdi geroago ere hala izaten jarraitzen du.

Alemanian bizitako esperientziaz solasean aritu dira hainbat herritar Uztarriarekin.

## MIREN LLORENTE

|||Adina. 69 urte. |||Emigratu noiz eta nora. Miren Llorente 1960an. Senarra, Angel Aranbarri, 1959an. Alemaniako Biedfeld herrira. Hiru urte pasatu zituzten.

### “Paradisua zen hura”

“Angel eta biok nobioak ginela, lagun batzuk elkartu eta tornuak egiteko tailerra zabaltu zuten, Jator. Gero, soldaduskara joan zen, eta bueltan, 1959an, krisi bete-beteak harpatu zuen. Tailerrean kobratu ezin zebiltzan. Nire gizona ez zen geldirik egotekoa. Beti esan izan nion lanerako jaioa zela. Hemen



Llorente fabrikari lanean. |||Miren Llorente

lanik ez eta soldaduskan ezagututako hamabost lagun elkartu eta Alemaniara joan behar zuela esan zidan. Lan asko zegoen han, oso ondo ordainduta, gainera. Gaur egun gazteek-eta asko bidaiatzen dute, baina garai hartan niri Alemaniara zihoala esan eta munduaren amaierara zihoala pentsatu nuen. Sekula Donostiatik atera gabe nengoen eta!

Hara joaterako hemen dena lotuta zuten, lan-kontratua, etxea... Nik orain ezin dut uler-

tu nolaz etortzen diren familia osoak hona, ez lantoki, ez etxe, ezer ere lotu gabe. Alemaniako tailer onenetakoan hasi zen lanean. 2.000 langileko fabrika zen. Lantegian bertan egunean bi orduko eskolak zituzten, alemana eta mekanika-ofizioa ikasteko. Nire gizonak beti esaten zuen han gauzak hemen baino askoz ere aurreratuago zeudela eta hura berarentzat eskola ona izan zela.

Senargaia Alemanian egon zen urtebetean eskutitz bidez mantendu genuen harremana. Diru pixka bat irabazi zitekeela ikustean, joandako lagun guztiek andregaiak hara eramatea pentsatu zuten. Ni artean gaztea nintzen. Gainera, alaba bakarra ez, baina nire anaia ni baino 16 urte zaharragoa zen, eta ni nintzen amaren kuttuna. Etxean ez zidaten uzten Alemaniara joaten. Zenbat negar egin nuen nik! Angelek Alemaniatik nire amari eskutitzak bidaltzen zizkion; han diru pixka bat egin zitekeela, niretzako lana bilatuko zuela eta berarengana joaten uzteko eskatuz. Askokostata, baina nola edo ahala etxeak konbentzitzea lortu nuen. Alemaniara elkarrekin joatekoak ginen bost bikote egun berean, el-



Alemanian bizi ziren egoitzako korridorean elkartzen ziren hemendik hara joandako euskaldunak, igandero, bazkaltzeko. Mahaiburutzan dagoen emakumearen ezkerretara Angel Aranbarri, eta eskuinetara, Miren Llorente. ■■Miren Llorente

karrekin ezkondu ginen, Donostian.

Alemanian biziako esperientzia hura oso aberatsa izan zen. Paradisua zen hura. Beste mundu bat aurkitu genuen han. Hemengo bizimoduarekin alderatuta, gutxienez hogeitau urte aurrerago zeuden han, zentzu guztietan. Berogailuak, garbigailuak, dirua bota eta kafea ematen duten makinak... han ezagutu genituen guk. Alemanengatik esaten da itxiak direla, baina irekitzen direnean, zoragarrak dira. Ikaragarritzko edukazioa dute. Txokerik handiena hizkuntzarena izan zen. Ikasi nuen, ondo ez, baina defendatzeko lain bai.

Ehungintzako fabrika handi batetan egin nuen nik lana. Egunero, nagusia postuz postu pasatzen zen, langile bakoitza agurtzerara. Oso baldintza onak nituen, dezente irabazten nuen. Bi urtetan, Angel eta bion artean, etxe bat erosteko adina aurreztu genuen.

20 urte nituela, alaba jaio zen. Hemen ez bezala, han lau hilabeteko amatasun baja genuen eta haurtzaindegiak zeuden, baina alaba ezezagunen eskuetan uzteak beldurra ematen zidan. Begira zer mentalitate genuen! Hala, Azpeitira etorri eta Angelen amarekin laga genuen hiru hilabeteko alaba. Hemendik Alemaniara 24 orduko bidaia zen tre-



■“Hemengo bizimoduarekin alderatuta, gutxienez hogeitau urte aurrerago zeuden han, zentzu guztietan”

**MIREN LLORENTE**

nez, eta bide osoa negarrez egin genuen. Alemaniara ailegatu ginenean, Angelek esan zidan hurrengo egunean Azpeitira bueltatuko ginela. Nire poza! Oso gogorra zen egoera hura. Ezin ginen bizi umerik gabe. Dena falta zitzaigun. Diruaren beharra bagenuen,

bai, baina horrela bizitzea ez zen kontua. Gurekin batera joandako bikote batzuk han geratu ziren eta urte dezente, gainera.

Koinatua alemaniarra dut, eta duela bost urte gu bizi izandako hiria, Bielefeld, bisitatzeko izan ginen. Asko aldatuta dago. Nire lantokia izandakoa orain museo zoragarria da”.

## JULENE OIARZABAL

■Adina. 79 urte. ■Emigratu noiz eta nora. Julene Oiarzabal 1961ean. Senarra, Angel Osa, 1960an. Alemaniako Dortmund herrira. 33 urte pasatu zituzten.

“Bi mundu desberdin ziren”

“Soraluzen lana egiten zuen Angelek, baina lanik ez eta lagun batzuekin batera Alemaniara joan zen, 1960an. Ni Eibarren nengoen neskame, baina lana utzi eta urtebetera Angelengana joan nintzen, 27 urte nituela. Fusiobleak egiten zituen fabrika batean bilatu nuen lana, Alemanian bizi zen Errioxako abade baten laguntzari esker. Zazpi urte generamatzen elkarrekin eta ni Alemaniara joatean ezkondu ginen. Gure ezkontzara familako inor ez zen joan. Aitabiti eta amabiti be-►



►zala gizonaren tailerreko euskaldun batzuk joan ziren.

Logela batean bizi ginen, alokairuan; sukaldatu eta dena bertan egiten genuen, eta komuna eskaileretan genuen. Baina ez pentsatu gu bakarrik bizi ginenik horrela, Alemanek ere ez zuten etxe propioirik, alokairuaren filosofia zuten. Dortmund oso herri handia baina zaharra zen, dena puskatuta zegoen, supermerkatu bakarra zegoen. Orain ez dago ezagutzerik; sekulako dendak-eta daude.

Hizkuntzari dagokionean, oso gaizki moldatu ginen. Azokara libra bat haragi erostera joan eta libra erdia eskatzen nuen, libra osoa esaten ez nekien eta. Ondoren, beste harategi batera joaten nintzen, beste libra erdi haragi erostera. Hizkuntza menderatzen ez eta bi lekutan erosi behar haragia! Gerora bai, ikasi nuen, zer erremedio!

Gero, bi seme izan genituen, Aitor eta Asier, eta etxe hobe hartu genuen. Aitor gu-rekin bizi izan zen; Asier, berriz, 11 hilabete zituela, Azpeitian nire ahizparen etxean utzi genuen. Asko akordatzin ginen berekin, baina lanera joan beharra genuen eta badakizu... Bagenekien ondo zainduta zegoela. Angel eta biok lanera joan behar izaten genuenez, bizilagunak zaintzen zigun Aitor, eta hamar urtera arte alemana besterik ez zuen hitz egiten. Etxean egoten al ginen ba gu semearekin? Gauean egoten ginen apurra, horixe. Lana egiteaz gain, gainontzean kalera atera ere ez ginen egiten; edo irteten baginen ere beheko solairuan bizi ziren bizilagunengana joaten ginen.

Hamar urterekin, barnetegira joan zen Aitor. Hiru astean behin etortzen zen etxera. Barne-ikasle zela, osaba Imanol Eliasek es-



Tailerrean, lankideekin, gabonetako opariak jasotzen. ||| Julene Oiarzabal

kutitzak eta esgunkari-zatiak bidaltzen zizkion. Aitorrek, ordea, ez zuen euskaraz eta erderaz ezer ulertzen, eta gutun haietan zer jartzin zuen itzultzeko eskatzen zidan. Halaxe ikasi zuen euskaraz. Gero, han bizi zen Kataluniako batekin gaztelania ikasi zuen. Bi urtean behin, udan, hilabete pasatzera etortzen ginen hona, eta hari euskaraz hitz egiteko eskatzen zigun, eta ez alemanez. Orain, berriz, semeak eta biok alemanez hitz egiten dugu elkarrekin.

Bi mundu desberdin ziren, baina ez nuke esango garai hartako Alemania asko aurreratu zegoela. Gehien harritu ninduen alemaniarrek duten edukazioa da. Klean, gizonezkoek agurtzeko kapela kentzen zuten.

Gero, duela hogeit urte inguru, senarra aurrejubilatuta eta Euskal Herrira itzuli ginen, Zaurutzeran.\*



||| “Gehien harritu ninduen alemanek duten edukazioa da; klean agurtzeko, kapela kentzen zuten gizonezkoek”

JULENE OIARZABAL

arte eta diseinu ikastegia

**di**

**Dibujo eta eskulanak**  
(haurrak) 17:30/19:00

**Pintura** 17:30/19:00

**Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

**K**

**J A T E T X E A**

Loiola hiribidea, 24

**LOIOLA - AZPEITIA**

Tlfnoa.: 943 81 50 08

Faxa.: 943 15 03 62

**Iuba**

aholkularitza

Aholkularitza:  
fisikala  
laborala  
kontablea

Gestioi lanak:

Finkien administrazioa

Gestio inmobiliarioa

Tlf.: 943 157 525 Fax: 943 157 275  
Euzkaren kalea, 45 • Iuba.arte@euzkara.net

**ORDULARI**

12  
9  
6

Jose de Artetxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

**MIKEL ASTIZ** Munichen, Bavaria eskualdean (Alemania) ari da lanean

## “profesionalki eta pertsonalki aberasteko asmoz, esperientzia berrien bila etorri ginen”

||| Ez da ohiko istoria bikote hone-na. Krisi beteko garaian, zutena laga eta bizipen berrien bila joan ziren Alemaniara, lanera. Euskal Herrira, etxera, itzultzea dute helburu, urte batzuren buruan.

### **Nolatan sortu zitzaizuen Alemaniara joateko aukera?**

Egia esan, gure istorioa ez da batek pentsa lezakena. Biok genuen lana Euskal Herrian eta, gainera, gustura geunden, baina BMW-tik aukera interesgarria eskaini zidaten eta ideia ona iruditu zitzaigun esperientzia berrien bila aldaketa egitea.

### **Erraz egokitu al zarete?**

Herrialde desberdina izateaz gain, hiriburu handi batera etor-

tzeak ere aldaketa asko dakartza, batez ere jendearekiko harremanei dagokienez.

### **Zer moduz hizkuntzarekin?**

Lanerako alemana ez zela beharrezkoa-eta ingelesarekin ondo moldatuko ginelakoan etorri ginen, baina alemana behar-beharrezkoa da. Ordu asko sartu behar izan dugu alemana ikasten, eta kosta zaigu oinarrizko mailara iritea. Gure inguruan jende asko ikusi dugu lana bilatu ezinik, aleman maila baxuegia izateagatik.

### **Zer lan egiten duzue hor?**

Ni ingeniari-informatikoa naiz eta BMW-rentzat ari naiz lanean. Eba ere ingeniaria da, eta Bucher Industries-eko hidraulika-dibisioan

dihardu. Aurretik genuen lan-esperientziarekin nahiko lotutako lanpostuak dira eta gauzak egiteko era berriak ezagutzen ari gara.

### **Hemengo baldintzekin alderatuta zer esango zenukete?**

Oro har soldatak altuagoak dira eta lan-baldintzak ere onak, baina guzti hori lantokiaren arabera asko alda daiteke. Laneko giroa, berriz, ez da bestelakoa. Ez deza-la pentsatu inork kafea hartzeko denborarik edo lankideekin hitz-egiteko tarterik izaten ez dugunik.

### **Zer moduz alemaniarrekin?**

Hiri handia izanda kanpotar asko elkartzen da hemen. Lankideekin, ikaskideekin... elkartu eta inoiz ez zaigu zereginik falta izaten. Bava-

roak, berriz, euskaldunon oso antzekoak dira: bizi guztirako lagunak bilatzen dituzte eta, beraz, nahiko itxiak dira. Halere, bertako lagunak egin ditugu.

### **Hor bizi diren euskaldunekin ba al duzue harremanik?**

Hasieran ez genuen euskaldunik ezagutzen eta, gainera, nahiago genuen bertakoekin harremanak sendotzea, integrazioa eta hizkuntza bultzatu nahian. Kasualitatez, ordea, euskaldunak ezagutzen joan gara eta hilean behin taldetxo bat elkartzen gara.

### **Zerk harritu zaituzte?**

Hemengo neguak. Egundoko hotza egin izan du, zeropetik 28 gradu. Oso goiz iluntzen du, bostak aldera. Halere, harritzekoa da zenbat jende ikusten den parkeetan. Oso giro alaia du hiriak.

### **Zer botatzen duzue faltan?**

Etxekoak eta lagunak. Horiez gain, ezer gutxi. Itsasoa agian, baina horren ordez lakuak eta mendiak ditugu. Elikagaiei dago-kienez, produktu onak aurkitzea oso zaila da, barazkiak batez ere.

### **Hemen ez zenuten horko zer gustatu zaizue?**

Garraiobide publikoa izugarri ona da. Hirian bizitzeko ez da autorik behar, metroa, tranbiak eta autobusak izanda. Gutxitan itxaron behar izaten dugu bost minutu baino gehiago. Bizikletaz ere bi-degorritik azkar ibili zintezke.

### **Etxera itzultzeko asmorik?**

Bai, noski. Esperientzia berrien bila etorri ginen profesionalki eta pertsonalki aberasteko asmoz, baina ez da gure asmoa inolaz ere hemen geratzea. Ikusiko dugu zenbat luzatuko den egonaldia, baina urte gutxi batzutarako etorri ginen.✱

**Ainitze Agirrezabala**



Mikel Astiz azpeitiarra eta Eba Ignacio azkoitiarra, Munichen, BMV-ren lantegia atzekaldean dutela. ||| Mikel Astiz



**Aiortza Autoak**

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
aiortzaautoak@telefonica.net



**Koh Tao**

OSAGARRIAK

Foru ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

**Amenabar**

DENDA

gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Tel/Fax: 943 15 06 97



# GARAZI LARRAÑAGA

Irunberriko Arangoiti Ikastolako zuzendaria

## “Bidea ez digute inoiz errazten”

Instituzioetan euskararen presentzia “hutsala” bada ere, ikastolaren lanari esker, Irunberrin euskararen ezagutza asko igo dela dio azpeitiarrak. 📝 **Julene Frantzesena**

**Z**eharkako flautako goi mailako ikasketak egin, eta musikaren munduan murgilduta hainbat urte pasatu ondoren, umea eduki eta Haur Hezkuntza ikastea erabaki zuen Garazi Larrañagak. Harrezkero, ikasketak bukatu eta Irunberriko Arangoiti ikastolako, zuzendaria da. Hiru seme munduratu ditu, eta Irunberrin, Nafarroan, bizi da. **Musika irakastetik ikastolako zuzendari izatera, aldaketa handia, ezta?**

Bizi osoan zeharkako flauta jotzen aritu nintzen eta, bat batean, espero gabe, hark baino gehiago betetzen ninduen zerbait aurkitu nuen. Aldaketarekin, bizitzan aukera asko daudela ikasi dut. Ikastola bateko zuzendari izatea go-

gorra baino, pisutsua da. Batzuetan zama handiegia. Irunberriko ikastola oso txikia da eta zuzendariak, alderdi pedagogikoaren kudeaketaz gain, ikastetxe osoaren kudeaketaren ardura du. Lana, etengabeko ikasketa moduan hartzen dut nik. Hala ere, gakoa lanaren koordinazio egoian dagoela iruditzen zait. Nafarroan beti aldapan gora ibiltzea bezala da. Bidea ez digute inoiz errazten eta gainera noizean behin harriren bat jartzen digute, estropezu egiteko. Nafarroako ikastolak lurretik jaiki eta maldan gora jarraitzen ondo ikasita gaude. Dena den, edalontzia beti ikusi daiteke erdi hutsik edo erdi beterik eta ni erdi beterik ikusteak aldekua naiz.

### ||| DATUAK |||||

||| **Jaio.** 1977ko irailak 16.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Irunberri. ||| **Lanbidea.** Irunberriko Arangoiti Ikastolako zuzendaria.

**Edalontzia erdi hutsik edo erdi beterik, nolakoa da Nafarroako ikastolen egoera?**

Ez dira garai oso onak. Ekonomia krisiak guztiei eragiten die eta ikastolei ere bai. Ikastola bakoitzaren egoera desberdina bada ere, orokorrean, garai gogorrak bizitzen ari gara. Berrirori ere, diru sarrerak lortzeko lanean ari diren batzordeak martxan daude ikastola ia guztietan.

**Nafarroako Gobernuak aintzat hartzen al ditu ikastolak?**

Ikastolak aintzat hartzen ditu, nahi ez badu ere. Ikastetxe kontzertatuetakoko ikasle kopuruaren herena ikastoletan dago gutxi gora behera eta, gainera, azken emaitzen arabera, DBHko emaitza onenak bertako ikasleek lortzen dituzte. Oso konfiantza hartzen gaituzte eta ahalegiak egiten dituzte ez gaitetzen gehiegi handitu. Badaezpada ere, erdia ingelesa, erdia gaztelania eta soberan gelditzen zaien denbora euskarari eskaintzen dion ereduak (TIL), ezartzen ari dira ikastolak dauden tokietan. Irunberrin, kasu. Beste ikastetxe kontzertatuak egiten dizkien fabrikak ere egingo balizkigute, pozik geundek! Euskararen sustapenean egin dezaketena zerrenda-

tzen hasiko banintz, berriz, ez nuke inoiz amaituko.

**Hamabost ikastola daude Nafarroako Ikastolen Elkar-tean. Horrek esan nahi du, hainbat gurasok beste herri batzuetara eraman behar izaten dituztela seme-ala-bak, ikastolan ikas dezaten.**

Nafarroako zonalde batzuetako ikasleen gurasoek ez dute euren herrian euskarazko hezkuntza hautatzeko aukerarik. Arangoitiko ikasleek ere Zangotzara joan behar dute DBH ikastera eta Iruñeara batxilergoa euskaraz egiteko. Unibertsitateko ikasketak euskaraz egiteko, berriz, Euskal Autonomia Erkidegora. Erriberako kasua oraindik larriagoa da.

**Arangoiti ikastola Nafarroako Gobernuak kontzertatutako ikastola da 2006az geroztik.**

Bai, alega izatetik kontzertatu izatera pasatu zen. Arangoiti bost ikasleekin hasi zen martxan, ikastola guztiak bezala oso egoera prekarioan, eta orain 60 bat ikasle diru orotara. Dena den, ikasle gehiagoko garaiak izan dira, baina Irunberri herri txikia da eta jaiotze tasak behera egin duenean... Ni kontzertatu izatera pasatu zen garaian ez nengoen hemen, baina badakit prozesua nahiko konplikatu izan zela. Aldaketaren aurretik eraikitza berria egin behar izan zen eta hori izan zen Nafarroa Oinez egitearen arrazoa.

**2003ko Nafarroa Oinez hura...**

Nafarroa Oinez hura egin ez balitz ez geundek orain hemen. Zorte oso txarra izan zen eguraldiarekin, baina Euskal Herri osoak egin zuen gure ikastolaren alde eta diru-ekarpen ugari jaso ziren. Horri esker egin zen eraikin berria, eta bizi izan zutenek kontatzen dutenez, izugarria izan zen ordukoa.

**Irunberri Nafarroako eremu ez euskaldunean dago. Nola-koa da euskararen presentzia?**



Irunberrin euskararen ezagutza maila asko igo da ikastolaren lanari esker. Instituzioen aldetik euskararen presentzia hutsaren hurrengo bada ere, hor dago ikastola euskararen inguruko jarduerak antolatu eta burutzeko. Herriko Zintzur euskara taldeak egindako azken neurketaren arabera, biztanleen herenak du euskararen ezagutza. Hala ere, gauza bat da euskararen ezagutza eta euskararen erabilera, bestea; ez datoz bat bi horien kopuruak. Hemen, gainera, zaila da emaitza horiek hobetzea, ez baitute euskaraz bizitzeko aukerarik. **Irunberrin euskara sustatzeko bidean, funtzio garrantzitsua du, beraz, ikastolak?**

Euskararen erabilera sustatzearen inguruan azkena entzun nuen hitzaldian, Andoni Egañak eta Joxerra Gartzia hiru eragile nagusi

aipatzen zituzten: eskola, familia eta hedabideak. Hemen, eskolak bakarrik sustatu dezake. Familiari gehiengoa erdalduna da eta hedabideei dagokienez, LTDaren kontuak eta ETB Nafarroan zabaltzeko lizentziak direla eta ez direla, gure haurrak euskarazko marrazki bizidunak gabe gelditu dira. Beraz, haurrek euskaraz jasotzen duten guztia ikastolatik dator.

**Nola ikusten duzu Arangoiti ikastolaren etorkizuna? Eta, Nafarroako ikastolena?**

Etorkizun ona ikusten diot Arangoitiri, edo nik halakoa izatea nahiko nuke. Egoera oso larrian iraun duen ikastola da eta jendea ohituta dago uraren kontra arraun egitera. Bestalde, ikastola txikia izateak badu bere alderdi positiboa gero eta globalizatuagoa dagoen munduarekin eta gero eta masifikatuago dauden ikastetxe-

ekin alderatuz gero: hezkuntza haur bakoitzari egokitzeko aukera dugu. Gero eta galduagoa dagoen komunitate zentzua oraindik ere ongi nabaritzen da gure ikastolan eta horrek desberdintzen gaitu. Bestalde, Irunberrin gisako herrietan, ikastolara eta eskolara joaten ziren ikasleak banatuta egon dira urteetan. Orain, normalizazio prozesu batean sartu gara eta ikastolara datozen haurren gurasoek ez dute inolako konplexurik, duintasuna dute eta ditugun eskubideak defendatzeko prest daude. Beti ere besteeiko errespetuari eutsiz. Nafarroako beste ikastolen etorkizuna ere ona izango delakoan nago, batzuen egoera oso-oso larria bada ere. Lan asko eta oso ongi egiten duen jendea dago ikastolan. Inplikazio handia dago eta ikastoletako hezkuntza proiektuak sona badu.✱






||| aiora olaizola |||



||| ihintza elustondo |||



||| amets cañizares |||



# OK ala KO?

# U

rtarrilak 20, 17:00)

**Ihintza.** Aiora, zurito bat?**Aiora.** Ez, mosto bat eta bi azeituna.**Ihintza.** OK.**Aiora.** Zer esan ditene aurreko hileko artikulugatik?**Ihintza.** Xelebre samarra zela. Hiri?**Aiora.** Argazkian guapa azaltzen gaitunala.**Ihintza.** Ez dun gutxi hi! Kar, kar, kar.**Aiora.** Amets ba al zetorren?**Ihintza.** Eskuko behatz txikia jokatu niken loak hartu duela.**Aiora.** Badaezpada ez dun behatz potoloa jokatu.

(18:00)

**Amets.** Egun on deizuela!**Aiora.** Inoxetik zuzenean al hator edo?**Ihintza.** Beti berdin haiz. Hor joango hitzen etxera balantzaka, giltza sarrailan sartu ezin, koadro denak bota, pixik egin gabe ohera, maskuria alkoholez beteta, botak likaz...**Amets.** OK.**Aiora.** Ondo pasatuko hunan, behintzat?**Amets.** Gaueko hamabietan San Sebastian martxa entzutea ederra izaten dun. Oilo ipurdia jarri zitzaidanan.**Aiora.** Ni hor egon nindunan arkupetako banku gainera igota. Ez ninan ezer ikusten baina ileak 'xut'!**Ihintza.** Ba ni plazan nengonan danborra jotzen baina ileak beti bezala, "txof"!**Amets.** Ba orduan azkoitiarra izango haiz.**Ihintza.** Et, et, et! Ni Garmendin enpadro-natuta nagon.**Aiora.** Karnabalak ere gainean dizkinagu.**Amets.** Pentsatu al duzue zertaz jantzi?**Aiora.** Bai, baina sekretua dun.**Amets.** Urtero berdin haiz eta gero txapuza

||| **AMETS.** "Gauerdian, San Sebastian martxa entzutean, oilo ipurdia jarri zitzaidanan"

||| **AIORA.** "Arkupetan banku gainera igota ez ninan ezer ikusten, baina ileak 'xut'"

||| **IHINTZA.** "Plazan nengonan danborra jotzen, baina ileak beti bezala, 'txof'"

bat jantzita ateratzen haiz.

**Ihintza.** Nik oraindik ez zakinat zer jantzi. Baina seguru etxean ez gaitunala geldituko.**Aiora.** Txikiteo elegantean jantzen al zarete?**Amets.** Ni ez. Gona zahar horiekin kaleko pixa guztiak arrastan eramatea ez zaidan bati ere gustatzen. Hi bai ezta, Ihintza?**Ihintza.** Elegantetik gutxi izaten dinat baina zerbait jantzen dinat, bai.**Aiora.** Honezkero bandera jaitsiera hasi dun.**Amets.** Goazen bai, beti berandu ibiltzen zarete eta!**Ihintza.** Hitz egin din... Mazapan aurpegi horrekin joan behar al dun?**Aiora.** Kaitok grabatzeko ere...\*



# Aho bizarrik gabe

‘Berria’ egunkariko Martxelo Otamendi elkarrizketatuko dute, zuzenean. Sanagustinek, Uztarriak, Hitzak eta Erlok elkarlanean egingo dituzten aurreneko alea da.  Uztarria

**S**anagustin kulturguneak, Uztarria Komunikazio Taldeak, Urola Kostako Hitzak eta Erlo Taldeak elkarlanean egingo dituzten solasaldien aurreneko alean, ‘Berria’ egunkariko Martxelo Otamendi elkarrizketatuko dute zuzenean.

Duela hamar urte, 2003ko otsailaren 19an, Martxelo Otamendik, ‘Euskaldunon Egunkaria’-ko orduko zuzendariak, euskarazko prentsaren inguruko hitzaldia eman zuen, Azpeitian. Ordu batzuen buruan, Espainiako Auzitegi Nazionalaren agindupean hedabidea itxi eta hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibila. Justu, hitzaldia eman zuenetik hamar urtera, berriz izango da Otamendi Azpeitian, euskarazko prentsaren eta beste hainbat gairen inguruan hitz egiteko.

## III DATUAK

III **Zer.** ‘Aho bizarrik gabe’: Martxelo Otamendi.  
III **Eguna.** Otsailak 19 (asteartea). III **Ordua.** 19:30  
III **Tokia.** Sanagustin.  
III **Antolatzailea.** Sanagustin kulturgunea, Uztarria, ‘Erlo’ eta ‘Hitza’.

## Bi hilean behin

Hil honetatik aurrera egingo diren solasaldien helburua da Euskal Herriko pertsona ezagunekin kalitateko eta prestigioako saioak antolatzea, euskaraz.

Maiztasunari dagokionean, bi hilean behin egingo dira solasaldiak, Sanagustin kulturgunean, eta ordubete pasatxoko iraupena izango dute.\*

## III ‘AHO BIZARRIK GABE’

# 10

**urtera.** 2003ko otsailaren 19an, Martxelo Otamendik hitzaldia eman zuen Azpeitian, eta ordu gutxira ‘Egunkaria’ itxi zuten.

# 2

**hilean behin.** Euskal Herriko pertsona ezagunekin kalitateko eta prestigioako saioak antolatuko dira, maiztasun horrekin.\*



2003ko otsailaren 19an Otamendik hitzaldia eman zuen Azpeitian, Baite Euskara Elkarteak antolatuta. III Baite

## III BESTERIK

**1**Artea eta diseinua, ikusgai Momentuak’ izenburupean, Arte eta Diseinu ikastegiko irakasleek urtean zehar egindako lanak ikusteko aukera izango da. Horrez gain, Diart ikastegiko ikasleen lanak ere jendaurrean jarriko dituzte, III **Eguna.** Otsailaren 1etik 13ra. III **Ordua.** Otsailaren 1etik 8ra: 18:00etatik 20:00etara. Hilaren 9tik 13ra: 12:00etatik 14:00etara. III **Tokia.** Betharram aretoa. III **Antolatzailea.** Arte eta Diseinu ikastegia.

**2**Argazki zaharrak, aukeran Garai bateko herriko argazki zaharrak ikusiaz gozatzeko parada izango da hil honetan. III **Eguna.** Otsailak 6tik 13ra. III **Ordua.** Kulturgunearen ordutegia. III **Tokia.** Sanagustin. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Argazki Elkarte.

**3**Karnabalak ate joka

Hementxe dira karnabalak! Kaldereroek herrira egindako bisitak iragarri digu karnabalak gerturatzen ari direla. Ostiralean eta zapatuan ere festa giroa izango da herrian, baina asteartera arte luzatuko diren inauteriek jai karnabalean egingo dute eztanda. III **Eguna.** Otsailak 8, 9, 10, 11 eta 12 (ostiraletik asteartera). III **Ordua.** Egun osoa. III **Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.\*

III Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.com/agenda](http://uztarria.com/agenda)



**IRAURGI**  
ikastetxea



kristau-eskola

# ETORKIZUNERAKO ZUBIAK ERAIKITZEN



Pertsona  
autonomoak, sortzaileak  
eta konprometituak lortzeko  
haziak ereinez



Diseinua: INNOVADOS.COM

**Zatoz  
gu ezagutzera!**

Matrikulatzeko epea: urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra arte  
Bilera informatiboa: urtarrilaren 24an, arratsaldeko 19:00etan  
Ate irekiak: urtarrilaren 28an, arratsaldeko 15:30etan  
Harzubia hiribidea, 7 943 81 63 80



## HITZ GEZIDUNAK

|                                                                                  |                     |         |                     |   |                                 |                  |                   |   |                        |
|----------------------------------------------------------------------------------|---------------------|---------|---------------------|---|---------------------------------|------------------|-------------------|---|------------------------|
|  | Bekataria           | ▼       | Pl. musika tresna   | ▼ | Egosten erraza                  | ▼                | Fruitu mota       | ▼ | Irakurtzeko ohitura du |
|                                                                                  | Begira, so          |         | Noka edo toka, zara |   | Labore mota                     | ▶                | Itsas arraina     |   |                        |
|                                                                                  |                     |         |                     |   | Musika mota                     |                  |                   |   |                        |
|                                                                                  | Egiptoko hiriburuko | ▶       |                     |   |                                 |                  |                   |   |                        |
|                                                                                  | Mirakulua           |         |                     |   |                                 |                  |                   |   |                        |
| Jasoa, altxatua                                                                  | ▼                   | Amodioa | ▶                   | ▼ |                                 |                  |                   |   |                        |
| Oroipenak, oroitzak                                                              |                     | *       |                     |   |                                 |                  |                   |   |                        |
| ▶                                                                                |                     | ▼       |                     |   |                                 |                  |                   |   |                        |
| Haran, ibar                                                                      | ▶                   |         |                     |   | Potasioa                        | ▶                | Jainko egiptoarra |   | Uranioa                |
| Nabar                                                                            |                     |         |                     |   | Zubereraz, orbana               |                  | Bokala            |   | Ez geza                |
| ▶                                                                                |                     |         |                     |   | ▼                               | Ez eme           | ▶                 | ▼ | Gramoa, labur-labur    |
|                                                                                  |                     |         |                     |   |                                 | Kontso-nantea    |                   |   | Leku hartan            |
| Kisuak                                                                           | ▶                   |         |                     |   |                                 | ▼                | Ez ezin           | ▶ | ▼                      |
| Ugatzak                                                                          |                     |         |                     |   |                                 |                  | Siberiako ibaia   |   |                        |
| ▶                                                                                |                     |         |                     |   |                                 | Zuberoako herria | ▶                 | ▼ |                        |
|                                                                                  |                     |         |                     |   |                                 | Kontso-nantea    |                   |   |                        |
| Barazki hostotsua                                                                | ▶                   |         |                     |   | Europako hegoaldeko errepublika | ▶                | ▼                 |   |                        |



Egilea:  
Luma

\* Azpeitiko Kultur Elkarte

## HIZKI ZOPA

Aurki itzazu hizki zopa honetan irudiotako zortzi txakur arrazen izenak



|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | G | A | U | Z | I | C | H | I | H | U | O |
| R | O | X | R | O | K | A | E | L | I | P | L |
| I | B | P | E | K | I | N | D | A | R | R | A |
| A | E | I | A | R | R | I | U | D | E | Z | A |
| R | C | A | N | I | C | H | E | A | J | N | U |
| R | K | R | S | Z | A | C | H | L | A | H | I |
| E | Z | R | E | U | T | A | E | M | F | I | N |
| K | O | A | H | B | P | K | R | A | G | R | A |
| C | U | I | M | E | O | E | E | Z | U | X | O |
| O | H | N | K | U | B | X | U | I | H | C | T |
| C | O | A | N | O | B | R | E | A | M | A | N |
| D | I | G | D | N | A | I | A | R | R | O | A |
| N | A | F | T | A | X | U | H | R | R | E | I |
| L | B | A | E | O | N | D | I | A | G | A | Z |

## SOLUZIOAK

## HITZ GEZIDUNAK

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | I | N | A | B | L | A | • | A | Z | A | • |
| E | Z | A | Z | O | • | K | A | I | T | I | T |
| L | A | H | A | • | K | A | E | R | A | K | • |
| R | G | • | R | A | • | T | R | A | K | I | P |
| U | • | A | R | • | K | • | O | R | A | R | • |
| K | A | N | E | P | A | Z | T | O | I | O | R |
| A | N | A | S | U | A | T | A | I | M | • | E |
| R | A | R | O | T | R | A | I | K | A | • | • |
| I | A | R | I | G | • | A | H | A | B | E | • |
| • | A | • | E | • | G | • | B | • | • | • | • |

## HIZKI ZOPA

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | A | G | A | I | N | O | E | A | B | L |
| I | E | R | H | U | X | A | F | N | A | N |
| A | R | O | A | I | A | D | G | D | I | G |
| N | A | M | A | N | O | B | R | A | N | O |
| T | C | H | U | I | H | C | O | H | N | K |
| X | O | Z | U | E | E | M | E | C | U | I |
| A | G | R | A | G | R | A | K | P | B | H |
| N | F | I | N | F | I | N | F | I | N | F |
| I | H | A | I | H | A | I | H | A | I | H |
| U | J | N | A | J | N | A | J | N | A | J |
| A | E | Z | A | E | Z | A | E | Z | A | E |
| A | E | I | A | R | I | U | D | E | Z | A |
| A | P | E | K | I | N | D | A | R | R | A |
| L | P | L | R | O | X | R | O | K | A | E |
| E | G | A | U | Z | I | C | H | I | H | U |

## ZEIN DA?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Otsailak 22 (ostirala) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZEIN DEN ADIERAZI.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

## UZTARRIAREN URTARRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA

## ZEIN DA?



## HARITZ IBARZABAL HERRITARRA



## IRABAZLEA



Fernando Arakistain Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 146. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Fernando Arakistain, saria eskuetan duela.

## ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena  
bertako produktuak eta gutixiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16  
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od  
rio  
z  
ola



## ||| FOTONOA |||||

▲ **BEKAK, AZPEITITIK SWAZILANDIARAKO.**

Amaia Garmendiak eta haren lagunek ostiral arratsaldeak eta zapatu goizak plazako arkupetan ematen dituzte, jendeak emandako bigarren eskuko liburu, CD eta DVDak saltzen. Jasotako sosek Afrikarako bidea hartzen dute, Amaiaren anaia Mikel salesiarraren bidez.\*

## ||| EFEMERIDEAK |||||

1672

**Haragia eta bakailaoa hornitzen zutenen gutunak.** Prezioak altxatzea eskatu zuten, galera sortzen zietela-eta, baina Udalak ezezkua eman zuen.

1887

**Ohitura alde batera utziz.** Tomas Arzuaga eta Bernardo Olaizola gauzainek esan zuten uko egin ziotela inauteri astearte sokamuturra zuzentzeari. Ondorioz, agintariek bakoitzari bost pezetako isuna ezarri zien.

📌 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.\*

## ||| IKUSTEKO! |||||

◀ **KUXIDADEA.**

Zaborra hala edo hola bildu behar dela, era honetan eta ez bestean egin behar dela kudeaketa, hemengo sistema hau hango beste hura baino askoz egokiagoa dela... Zeresana eman du, ematen du eta, antza, emango du gaiak gurean. Denetariko argudio eta datuak dabilta eztabaidaren zurrumbiloan, sarri kontrajarriak. Bien bitartean, egunerokoan, hondakin asko sortzen dugula da garbi dagoena. Ikusi, bestela, urtarileko bigarren astean ateratako argazkia. Hautu jakin baten kontra daudenek erabili izan duten estetikaren argudioari koloreak ateratzeko modukoa bada, behintzat.. 📌 📷 Uztarria\*

## Mendabelarra

**T**xikitan konturatu nintzen etxeokandira askok baserri inguruan mendabelarra biltzen zuela, hurrengo egunean mendazko erratzak azokan saltzeko. Menda usain gozoz gelditzen ziren etxeok gelak erratza pasatzean. Munduan 1.000 menda espezie baino gehiago ezagutzen badira, pentsa dezakegu etxe bakoitzak usain ezberdina zuela. Beti izan du estimu berezia gure kulturaren, pobreen eta aberatsen etxeak girotzen baitzituen. Estimua hori nabari da ahoko ultzerak sendatzeko erabileran ere.

Duela 4.000 urtez geroztik mota askotako propietateak dituela esan izan da; batzuk frogatuak eta besteak ez. Etxean mendabelarra eduki nahi badugu, lurrean landatu eta sarri ureztatzea nahikoa da. Toki laiotzetan edo itsaltsuetan azkarrago hazten da. Ingurunea usain gozoz hornitzen du, eta baita zenbait jaki ere. Esteetako ezbeharrak aintzeko eta gorakadak saihesteko ere baliagarria da.

Mendabellarren hainbat barietate erabili izan da Medikuntza naturalean, era askotara osasun arazoak konpontzeko; baina, egia esateko, kasu gehinetan ez dute bere eginkizuna betetzen eta irudipen sukartsuen kontuak izaten dira. Arrazoi horregatik, uste dut ez duela merezi aipatzea ere, ez baitira gaitz guztien erre-medioa.\*



||||||| **Julian bereziartua** |||||

## INTZA ETXEBERRIA fisioterapeuta-osteopata



- 1. Tratatzan duzun ohiko mina?**  
Bizkar-hezurrekoa, bertigoa, buruko-mina, organoetakoa.
- 2. Zerk eragiten du?**  
Mina abisua da, gorputz atala ez dagoelako ondo hainbat arrazoigatik.
- 3. Medikuek konpondu ez eta zuengana al doaz?**

- Egun, joera da botikak hartu aurretik, arazoa beste bide batzuetatik konpontzea.
- 4. Jendea ez al da berandu joaten, minez?**  
Mentalizatu eta lehenago datoz, sesioak probatzean.
  - 5. Jendeak dentistari beldurra dio. Eta zuei?**  
Erabiltzen ditugun teknikak

- ez dira oso mingarriak.
- 6. Bezeroaren profila?**  
Sexu bietako 40 urtetik gorakoak; adinekoak, umeak, haurdunak, kirolariak...
  - 7. Osteopatia...**  
Gorputzeko atal guztien - nerbio-sistema, hezur, gihar-erlazioa kontuan izaten dugu.
- Ainitze Agirrezabala

 Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40  
Larrialdiak:  
943 15 16 40  
**Ekain**  
ALBARTARI KLINIKA

 **AIZPURU AUTOAK**  
Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA  
[aizpuru@aizpuru.net](mailto:aizpuru@aizpuru.net)

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA  
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
[www.ialtunadenda.com](http://www.ialtunadenda.com)

**DI-DA diseinua**  
zure lorategi edo terrazara diseinua  
**90€ren truke**  
[www.kimubat.com](http://www.kimubat.com)



**SEGUROS BILBAO** | Grupo **CATALANA OCCIDENTE**  
[www.segurosbilbao.com](http://www.segurosbilbao.com)

**ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:**

- ETXEBIZITZAK
- AUTOAK
- DENDAK
- PERTSONALAK eta abar.

AURREZTEKO PRODUKTU INTERESGARRIAK.  
BAITA AURREZKIENTZAKO ERE.

**Joxe Migel Muguruza** (Urola Erdirako agente eskklusiboa)  
Telf: 652.776.909 [jm.muguruza@segurosbilbao.com](mailto:jm.muguruza@segurosbilbao.com)



# Izana da, ez izena

Euskal Herri euskalduna sortzeko euskal prentsaren beharra dagoela ikusi behar du jendeak. Hori ez da lan erraza.

✍️ Eneritz Albizu



# D

atorren otsailaren 20an hamar urte beteko dira *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik. Espainiako Auzitegi Nazionalaren agindupean, hedabidea itxi eta hamar lagun atxilotu zituen Guardia Zibilak, 2003an.

*Egunkaria* itxi zuten, baina haren jarduna ez da eten. Langileek proiektuan sinesten zuten eta nortasuna mantenduz, *Egunero* argitaratu zuten hurrengo egunerako. Lehen-dabizi *Egunero*, eta gero *Berria*; euskal prentsak eta hori posible egiten duten guztiek ez

dute amore eman urte hauetan guztietan. Iban Arregi eta Enekoitz Esnaola, *Egunkaria*-ko langile ohi eta *Berria*-ko langile direnak, elkarriketatu ditu Uztarriak.

## ***Egunkaria*-ren azken oroitzapenak**

Otsailaren 19an Martxelo Otamendik, *Egunkaria*-ko orduko zuzendariak, euskarazko prentsaren inguruko hitzaldia eman zuen Azpeitian, eta elkarriketatuak han izan ziren.

Egun hartan, bi lagun atzetik sentitu zituztela oroitzen dute azpeitiarrek: “Zerbait ger-

tatzen zela nabaritu nuen, baina ez nuen pentsatu ere egin *Egunkaria*-ren kontrako ezer izango zenik. Gau hartan mugikorra piztuta laga nuen, zerbaiten susmoagatik. Eneko Etxeberría *Egunkaria*-ko orduko abokatua-  
ren deia jaso nuen, lankideei deitu eta autoz joan ginen Andoaingo AEKra”, azaltzen du Esnaolak.

*Egunkaria*-ko langileak Andoaingo AEKn bildu ziren, zer egin ez zekitela, baina kazetarien hitzetan, honakoa izan zen lehen erreakzioa: “Beste egunkari bat atera behar dugu,

nola edo hala". Kazetaritza arloan eta eremu juridikoan antolatzen hasi ziren langileak. Iban Arregik "egun hori laino baten barruan bezala ikusten" du, oraindik.

## Egunero-ren lehen egunak

*Egunkaria*-ko langileak hurrengo eguneko egunkaria ateratzea "beharrezkoa" ikusten zuten. Horrela erabaki zen Tolosako erredakzioa erabili eta Tolosaldean *Egunero*, eskualdeko informazioa eskaintzen zuen egunkaria, Euskal Herriko *Egunero* bihurtzea. Otsailaren 20ko gauean prest zegoen hamasei orrialdeko egunkaria.

*Egunero*-k sekulako arrakasta izan zuen, *Egunkaria*-ren batez besteko 14.000 irakurleko kopurua erraz gainditu eta 50.000 ale saldu ziren otsailaren 21ean: "Begira zenbat jendeak hartu zuen *Egunkaria*-ren itxierari esker, lehen aldiz, euskarazko egunkari nazional bat", azpimarratzen du Esnaolak. Arregiren hitzetan, "Euskal Herriarentzat alde ona ere izan zuen 'marra gorria' pasatzeak; ordu-ra arte gaiaz pentsatu ez zuen jendeak kontzientzia hartu baitzuen".

*Egunkaria*-ri jarraipena emateaz gain, mobilizazioak antolatuta zituzten langileek. Hala, *Egunkaria aurrera!* lelopean, otsailaren 22ko manifestaziorako deia egin zen.

Esnaolak leloaren garrantzia azpimarratzen du: "beti aurrera, ez gora: 'gora' oso estatikoa da; 'aurrera', berriz, dinamikoa. Lau hila batera *Berria* sortu zen, 'aurrera' egin genuelako".

## Azpeitia eta 'Egunkaria'-ren itxiera

Gure herriak ere ekarpena egin zion auziari; hamabi azpeitiar langile zeuden *Egunkaria*-n eta horrek isla izan zuen Azpeitian. Elkarriketatuen hitzetan, "Uztarriak erabat heldu zion gaiari: orrialde dezente eskaini zizkion euskal prentsari eta kanpainari. Bestalde, Azpeitian akzioetan 59.000€ lortzeko helburua jarri zen, eta 61.520€ lortu ziren. Jende askok egin zuen lan hori lortzeko".

## Berria berria

2003ko ekainaren 21a arte, *Egunero* argitaratzen jarraitu zuten *Egunkaria*-ko lankide ohiek; baina hauek planteamendu probisional bezala ikusi zuten hasieratik. Lan taldean bi egiteko desberdin markatu ziren: probisionala zen egunkaria, *Egunero*, aurrera ateratzea eta proiektu berria, *Berria*, lantzea.

Elkarriketatuek azaltzen dutenez, euren erabakia *Berria*-ren gidaritza *Egunkaria*-ko langile ohiek hartzea izan zen: "Ez geunden



*Egunkaria* itxi arren, euskarazko egunerokoa argitaratzeko lanean jardun zuten. Argazkian, Enekoitz Esnaola azpeitiar kazetaria *Egunero*-ren erredakzioan, Tolosan, 2003ko otsailaren 20an. **III Egunero**

## Nortasun bera

III 2003ko otsailean Espainiako Estatuak *Egunkaria* itxi ondoren, kazetan lan egiten zuten hamabi azpeitiarrek iritzi hauxe plazaratu zuten Uztarria aldizkarian:

"Euskarazko prentsa aurrera!

Itxi egin digute *Egunkaria*. Baina *Egunero* atera dugu. Eta *Egunero* ixten badigute, euskarazko beste egunkari bat aterako dugu. Ez dio inporta izenak, izanak baizik. Eta *Egunkaria*-ren izan horrek ematen dio min Espainiako Estatuari. Euskal Herriaren burujabetzarako ezinbesteko tresna delako euskarazko prentsa".

Leire Aramendi, Jon Aranburu, Iban Arregi, Mikel Arregi, Mikel Azkune, Estitxu Elduaen, Oihana Elduaen, Enekoitz Esnaola, Eneko Etxeberría, Asier Legarda-Ereño, Xebaxtian Lizaso eta Kike Zurutuza (*Egunkaria*ko langile azpeitiarrak). ✖

zerotik beste proiektu bat egiten hasteko prest. Proiektu berriaren oinarri ideologikoak *Egunkaria*-ren baitan zeudenak izan behar zuten: hor dezenteko borroka egon zen".

## Etorkizunari begira

Esnaolak Uztarriari azaldu bezala, euskarazko hedabideek, kasu honetan prentsak, bi krisi dituzte: batetik, euskaldunen kontsumoa, batik bat, erdaraz izatea; eta bestetik, jende gazteak prentsarik ez kontsumitzea. Hori dela eta, etorkizuna nahiko zaila da.

“‘Berria’ egoera txarrean bada, euskaldunongatik da, informatzerakoan beste hautu batzuk egin ditugulako”

Krisi ekonomikoa ere ezin da alboratu, iragarkietan jaitiera handiak egon baitira. 'Berria laguna' kanpainaren helburua hori da: dituen harpidedun eta erosleei eustea eta laguntzak lortzea. Elkarriketatuek aitortzen dute horrelako egitasmoak mantentzeko dirua behar dela eta egoera zaila dela, baina euren hitzetan, "proiektua ezinbestekoa da Euskal Herriarentzat".

## Euskaldunon hautua

Herritar guztioi gogoeta egitea tokatzen zaigu orain, euskaldunak sentitzen garenoi: zer eratarako prentsa kontsumitu nahi dugu? Esnaolaren hitzetan, "Euskal Herria euskararen herria da, norberak ikusi behar du, hedabide aldetik, nola bizi nahi duen eta nola hazi eta hezi nahi dituen bere seme-alabak; zer eratarako erreferentziak eman nahi dizkion".

Axularrek *Gero*-n, 1643an, honakoa zioen: "Euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak". Kazetari azpeitiarrek ideia bera azpimarratzen dute, euskal hedabideak euskaldunongatik daudela ahul esanaz: "*Berria* egoera txarrean bada, euskaldunongatik da, informatzerakoan beste hautu batzuk egin ditugulako". ✖



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Udaletxea            | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa         | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak        | 112      |
| Azpeitia Lantzen     | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen      | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa      | 81 24 85 |
| Iturritxiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB     | 15 71 61 |
| Lanbide              | 15 04 02 |
| Kiroldegia           | 81 30 69 |
| Igerilekua           | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia  | 08 37 80 |
| Baigera I            | 81 51 71 |
| Baigera II           | 81 23 89 |
| Epaitegia            | 02 51 91 |
| Ingurumen Etxea      | 81 24 48 |

OSASUNA

|                        |          |
|------------------------|----------|
| Anbulatorioa           | 02 54 00 |
| Anbulator. larrialdiak | 02 54 01 |
| Eguneko zentroa        | 15 74 96 |
| Asepeyo                | 81 44 00 |
| Gurutze Gorria         | 85 32 97 |
| DYA-Donostia           | 46 46 22 |

KOMUNIKABIDEAK

|                           |              |
|---------------------------|--------------|
| Uztarria                  | 15 03 58     |
| Hitza (Azpeitia)          | 81 38 41     |
| Hitza (Zarautz)           | 89 00 17     |
| Azpeitian Zer?            | 08 06 88     |
| Erlo Telebista (Azpeitia) | 81 53 35     |
| Berria                    | 943 30 40 30 |
| Gara                      | 943 31 69 99 |
| Noticias (berriemaileak)  | 687 60 50 06 |
| DV (berriemaileak)        | 610 81 29 12 |
| Argia                     | 943 37 15 45 |
| Arrate Irratia            | 943 12 01 73 |
| Euskadi Irratia           | 943 01 23 00 |
| ETB                       | 943 01 17 05 |

ALDERDI POLITIKOAK

|       |          |
|-------|----------|
| Bildu | 15 72 00 |
| EAJ   | 81 55 70 |
| Sortu | 15 72 00 |
| EA    | 81 00 11 |

FARMAZIAK (OTSAILA)

EGUNEZ

|                    |                      |                       |
|--------------------|----------------------|-----------------------|
| 1-7-8-13-19-25     | 2-3-14-26            | 4-9-10-15-20-22-27    |
| Jacome (Azpeitia). | Aranburu (Azpeitia). | Beristain (Azpeitia). |
| 943 080258         | 943 811350           | 943 811949            |

GAUEZ

|                  |                     |
|------------------|---------------------|
| 1-14-26-27       | 2-3-15-28           |
| Jaen (Azkoitia). | Azpiazu (Azkoitia). |
| 943 850660       | 943 852989          |

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 27an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

|            |              |
|------------|--------------|
| Aralar     | 647 42 59 95 |
| Hamaikabat | 15 72 00     |

SINDIKATUAK

|      |          |
|------|----------|
| ELA  | 81 34 46 |
| LAB  | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

KULTURA-EUSKARA

|                      |              |
|----------------------|--------------|
| Sanagustin           | 10 52 20     |
| Kultur Mahaia        | 674 16 56 84 |
| Euskara Patronatoa   | 81 45 18     |
| Udal Euskaltegia     | 81 19 47     |
| AEK                  | 15 10 89     |
| EHE                  | 15 10 89     |
| Udal Liburutegia     | 15 71 95     |
| Loiolako Liburutegia | 81 65 08     |
| Kontseilua           | 943 59 12 00 |
| Bai Euskarari        | 902 43 00 26 |

IKASTETXEAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi              | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 81 63 80 |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |

BESTERIK

|                                      |              |
|--------------------------------------|--------------|
| Xoxoteko aterpea                     | 58 10 07     |
| Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak |              |
|                                      | 943 08 06 88 |

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 09:30-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



ODOL-EMAILEAK.

Besteren odolaren beharra eguneroko kontua da. Horretaz guztiok jabetzea nahi du Elkarteak; batik bat gazteak. Hileko azken asteazkenean dute hitzordua, anbulatorioan (18:00-21:00).

GARRAIOA

|                |              |
|----------------|--------------|
| ALDALUR        | 943 85 27 18 |
| EUSKO TREN     | 902 54 32 10 |
| GUIPUZCOANA    | 943 85 11 59 |
| PESA           | 943 21 26 99 |
| PIPER ELKARTEA | 943 85 25 87 |
| TAXIAK         | 943 81 13 07 |

||| autobusen ordutegi osoa: [www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/) autobusak

|                  |
|------------------|
| 12-13-25         |
| Ruiz (Azkoitia). |
| 943 851966       |

|                                     |                      |
|-------------------------------------|----------------------|
| 4-5-6-7-8-9-10-18-19-20-21-22-23-24 | 11-16-17             |
| Beristain (Azpeitia).               | Gisasola (Azkoitia). |
| 943 811949                          | 943 851235           |

## JUAN JOXE EIZMENDI 'LOIDISALETXE'

Bertsolari Santa eskean

“Harritzekoa da jende bat zain nola egoten den”

Hilaren 2an Kandelario, 5ean Santa Ageda, usadioa galdu ez dedin aterako da eskera Matxinbentako taldea. 📌 Ainitze Agirrezabala

**Z**enbat urte daramazu eskean?

Koplari, aurrena, Askizun atera nintzen eta ez nuen oso esperientzia ona izan. Edanaren erruz eguerdirako dena nahastuta geratu nintzen. Orduko hartan ederki eskarmentatu nintzen. Gero, sei urte Asteasun egin nituen, eta matxinbentarrekin hamabost daramatzat.

**Baserriz baserri, jan-edana franko...**

Zaindu egin behar da eta asko. Batik bat, edaria. Borondate on hori estimatu nahi duzu, eta azkenean ikasten duzu hartu, ahora eman eta ez edaten. Arriskutsua eguerdi aurre hori da, tripa huts antzean duzula. Hor, halere, matxinbentarrek formula on bat dute: gero izango ezpada ere, otartekoak eramaten dituzte 10:30ak aldera jateko.

**Etxe bakoitzean zer kantatu...**

Zuk baldin badakizu etxe horretan batenbat haurdun dagoela, ezkondu egiten dela, edo ateratzen bazaizkizu ate ondora hiru-lau ume, horiek salbazioa dira. Azken batean, santaeskeko koplak egitea ez da zaila, kon-tua da gaia bilatzea.

**Zain-zain ere izango duzue jendea?**

Bai. Urte batean, Urrestillatik gora gindoaze-

la, Uresaundin baserri berria egiten ari ziren eta han inor ez zela egongo eta aurrera pasatu ginen. Hurrengo baserrira, letara, deitu zuten, etxean zeudela eta joateko esanaz. Joan baginen joan, mahaia generoz beteta zuten, bertan afaltzeko moduan. Harritzekoa da jende bat zain nola egoten den.

**Nolako taldea da Matxinbentakoa?**

Taldea ona. Bata baino bestea aldrebesago, baina jende sana, ondo pasatzen duen jendea. Aurrenekoz haiekin atera nintzenean pentsatu nuen: 'Hauek zer animali klase dira?'. Berehalaxe erabaki nuen beraien giro hartan sartu eta ondo pasatzea.

**Anekdotarik?**

Behin, Matxinbentako Itsasoerrotta baserrian poltsa ahaztu zitzaigun, egun guztiko diruarekin. Beste urte batean, furgonetaren gurgipila zulatu zen. 'Sartu iezazioe puntapaxa eta geratuko duk', esan nuen. Bai sartu ere, bi aldiz pentsatu gabe, eta momentuan haizea geratu. Hala bukatu genuen. Matxinbentako plazara heldu eta txikertar bi anaien artean furgoneta airean jaso, eta gurgipila aldatu zioten, batere katurik behar izan gabe.✳



1. Juan Jose Eizmendi 'Loidisaletxe' bertsolaria.  
2. Matxinbentako taldea. 3. Loidisaletxe santa eskeko koplak kantatzen, Urrestillako Uiti baserrian.





# Hezkuntz iraultza

**B**eti eskola. beti ez bada ere, behin eta berriz eta askotan, jira-bueltak dabilkit eskola. eskola-kontuak. zerutik jakina da eskola modu honek, gurea izan den ere, gaur egun oraindik irauten duenak, ez duela buru ez buztanik. ikasleek ez dute fundamentuzkorik ikasten, makina bat burugabekeria sartu behar izaten dute buruan. “esadazu, zer da materia? zein da masaren definizioa? zein ezaugarriren arabera egin ohi ditugu paperezko txoriak?...” eta hamaika horrelako. hamaika zorakeria, alferrikako mila. irakasle izan nintzen 80ko hamarkadan, gogoan ditut irakatsi behar izaten nituen edukiak. irakaskuntzan nintzen 90eko hamarkadaren hasieran, hezkuntza erreforma halako batek indarka jo zuenean ikastetxeko atean. erreforma hura garatze bidean zela irten nintzen eskolatik, utzi nuen betiko eskola giroa. alaba jaiotzearekin itzuli ginen... usteko nuen hogeitahogei, hogei urte eta gero gauzak beste era batera egingo zirela. ez alferrik. lehengo lepotik burua. edukiak, gure garaikoak, baina ez irakasle ginen sasoikoak, moja ikastetxean ikasten genuen aldikoak baizik. sei urte geneuzkala, Betharramdarren ikastetxea estreinatu genuen urtean liburuetan ageri ziren edukiak ikusten ditut egunero alabak ikastolatik dakarzkigun etxeko lan zorrotan. eskolan egiten duena, atzera berriz etxean egiten. aspaldi irauli genuen ikastolaren asmoa, eta eskolako, etxeko, lanak egin behar ditugularik, alabarekin egoteko tartetzat hartzen dugu, nola ari den hazten, nola ari den burmuina nekarazten, argudioak ematen... ikusteko. horretarako ditugu gurean etxeko, eskolako, lanak, alabarekin egoteko denbora. gainerakoan, ez du balio, ez du merezi. erreformak ezagutu ditugu bat, bi eta hiru, batxilergoa zen behin, OHO oinarritzko hezkuntza orokorra gero, gaitasunak lantzea hurrena, edukiak prozedurak jarrerak, tartean galdu genituen erreformak eta, orain, wert delako batek espainia partetik ekarri nahi



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Konbentziturik nago  
besterik behar dela,  
erreforma ez baina iraultza  
behar duela eskolak...

duen erreforma txatxua, erreforma ideologikoa, espainiartzea. etorkizun motza duen eraldatzea. are motzagoa du mamia.

## Iraultzaren beharra

konbentziturik nago besterik behar dela, bestela erakutsi behar dugula, bestela ikasi behar duela ikasleak. erreforma ez baina iraultza behar duela eskolak... bila nabilela, mezu bat sartu zait postontzira. japonen abiarazi duten egitasmoaz ari da. futojino henko omen du izena: aldaketa ausarta. hezkuntza berriaren helburu omen da ikasleak munduko hiritar haztea. horretarako bost arlo landuko dituzte: negozioetarako aritmetika, irakurketa, gizabidea –legeak, etika, bizikidetzatza, tolerantzia, altruismoa...–, konputazioa –office, internet, sare sozialak...–, eta bost hizkuntza eta kultura –japoniarra, amerikarra, txinatarra, arabiarra–. hemen

ere hobe genuke erreformak baztertu eta japoniarren iraultza egin.\*





## AZPEITIKO IKASTOLA - KARMELO ETXEGARAI

Euskal Herria, 50 · Tfnoa.: 943 81 26 97 · [www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net](http://www.azpeitikoikastola.hezkuntza.net)  
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza



### ZAINTZA ZERBITZUA

#### BI JANGELA

- Lehen Hezkuntzakoentzat
- Haur Hezkuntzakoentzat (logela eta guzti)

#### GARRAIOA

- Autobus bakoitza bere zainzailearekin



**UROLA IKASTOLA**  
AZKORTIA - AZPEITIA IIII

## UROLA IKASTOLA

Perdillegi, 3 · Tfnoa.: 943 15 02 28 · [www.urola.org](http://www.urola.org)  
DBH, Batxilergoak eta Heziketa Zikloak



### DBH

#### BATXILERGOAK

- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

#### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Arotzeria eta altzarigintza
- Mekanizazioa

#### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Administrazioa eta finantzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa



\*DBHOn

**PAUSÖZ  
PAUSO  
ETORKIZUNA  
ERAIKITZEN**

# @ho bizarrik gabe

2013

**Martxelo  
Otamendi**



- \* Otsailak 19, asteazkena
- \* 19:30
- \* Sanagustin kulturgunea
- \* Azpeitia





# innovadental

hartz-klinika  
AZPEITIA



## ORTODONTZIAN

*adituak*



Merkatuan dauden **teknika aurreratuenekin** aurren eta helduen **hartz posizioa** zuzentzen dugu.

16 urte bitarteko umeentzat, kontsultatu gure deskontuak enpaste, endodontzia, radiografia eta garbiketetan.

# innovadental

Bisita gaitzazu:

**José de Artetxe kalea, 5**  
(anbulatorioaren ondoan)  
20730 **AZPEITIA** (Gipuzkoa)

Edo deitu:

**943 02 59 55**

***Eskatu presupuestoa***